

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

9131 *27/2020 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 4koa, Toki-entitateei aplikatzeko aparteko eta presako finantza-neurriena.*

I

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko. Harrezkero, Gobernuak zenbait neurri hartu ditu; batzuk, osasunaren arlokoak eta pertsonak babestekoak, eta beste batzuk, ekonomiaren arlokoak. Neurri horien bidez, estatu-laguntzen eta ekonomia eta gizartea suspertzeko laguntzen esparrua zehazten da, Europako erakundeek jarduketak eta konpromisoak oinarritzat hartuta.

Toki-entitateen azpisektorearen finantza-egoera ona dela esan daiteke; izan ere, 2012. urteaz geroztik toki-entitateak aurrezteko gauza izan dira, eta superabita izan dute urtean-urtean: 2019an, 3.839 milioi euro izan zen, BPGd nazionalaren ehuneko 0,31. Horregatik, eta egoera txarrean dauden herritarrei sostengua eman beharrak bultzatuta, 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena) toki-korporazioei aukera eman zitzaion beren superabiteko 300 milioi euro erabiltzeko gizarte-zerbitzuetako eta gizarte-sustapeneko inbertsio-gastuak finantzatzeko, eta, aparteko kasuetan, lehen arretako prestazioak eta mendekotasuna dutenen arreta-prestazioak finantzatzeko ere bai (prestazio horiek erabaki honetan arautzen dira: Erabakia, 2013ko urtarrilaren 16koa, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluarena, Gizarte Zerbitzuen Erreferentziako Katalogoa onartzen duena). Zenbateko hura autonomia-erkidegoen beharrianak betetzeko eraturako Aparteko Gizarte Funtzaren bestekoa zen.

Jarduketa horiek eragindako gastua finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetan egindako gastutzat jotzen da; beraz, ez da zenbatuko gastu-arauan, honako hauetan ezartzen dena aplikatuz: apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (seigarren xedapen gehigarria); Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoa (hamaseigarren xedapen gehigarria). Guztirako zenbateko hura toki-entitateen artean banatzean, bakoitzari 2019. urteko bere superabitaren ehuneko 20 ezarri zitzaion, 11/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko).

Halaber, eta aipatu den aurrekontuen egonkortasunari eta toki-entitateei buruzko arau-esparru berean, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak, ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituenak, honako hau ezartzen du jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko: toki-entitateek 2020. urtean beren superabitaren ehuneko 7 erabili ahal izango dute, gehienez, hondakinak biltzeko, ezabatzeko eta tratatzeko zerbitzuetarako, segurtasuneko eta ordena publikoko zerbitzuetarako, babes zibilerako, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetarako edo bidaiarien garraiorako diren ibilgailu elektrikoetan edo ZERO ingurumen-etiketa duten ibilgailuetan edo ECO etiketadunetan eta eskuratutako ibilgailuetarako eta ibilgailu horiek kargatzeko azpiegiturretan egiten diren inbertsio-gastuak finantzatzeko.

Horrenbestez, orain arte helburu honekin hartu dira neurriak: toki-entitateen superabita egungo osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisiaren ondorioz lehentasunezkoztat jotzen diren arlo jakin batzuetan erabiltzea, egiten den finantza-gastua gastu-arauan zenbatu gabe, aurrekontu-egonkortasunaren arautegiaren eta toki-ogasunei buruzko arautegiaren esparruan.

Hala ere, 2019ko superabita nola erabili behar den zehazten duten arauen aplikazioarekikoak egiteko, beharrezkoa eta presakoa da baliabide bera 2020an erabiltzeko aukera ematea aipatutako esparru berean. Are gehiago, 2018ko superabitarekin finantzatutako inbertsio jasangarrien proiektuak 2020rako gauzatuta egon behar ziren, hasierako aurreikuspenen arabera, baina aukera eman daiteke epealdia 2021era arte luzatzeko, alarma-egoeraren indarraldian jarduera ekonomikoa gelditu dela eta, eta alarma-egoera deklaratu aurretik toki-entitateek sinatutako kontratuak betetzeko orduan osasun-larrialdiaren ondoriozko krisia izaten ari den eragina dela eta.

Gainera, finantza-maniobretarako marjina handitu beharko litzateke, finantza-arazoak dauzkaten edo finantza-arriskuan dauden udalena batez ere, eta, horretarako, neurri batzuk hartu beharko lirateke finantzaketako aparteko mekanismoen esparruan eta, zehazki, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsaren barnean. Neurriok presazkoak jotzen dira, finantza-egoera onean ez dauden udalei aukera ematen baitzaie pandemiaren ondorioz beren eskumeneko lurraldean sortu diren beharrian sozialei eta herritar multzo jakin batzuei erantzuteko eta multzo horiei behar duten laguntza emateko.

Azkenik, errege lege-dekretu honen artikuluetan, zenbait neurri ezartzen dira toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetzari buruz. Batetik, kreditu-gaikuntzari buruzko neurriak dira, 2020. urteko konturako ekarpenen ordainketa guztiak egin ahal izateko. Horretarako, kreditu-gehigarria beharko da; hori, aurrekontuko aldaketa nolakoa den kontuan hartuta, lege-mailako arau baten bidez onartu behar da eta, izapideak presaz egin behar direnez gero, ezinbestekoa da horretarako errege lege-dekretuaz baliatzea. Bestetik, zenbait arau ezartzeko neurriak dira, toki-entitateei 2018ko partaidetzaren behin betiko likidazioaren emaitzako diru kopuruak transferitu ahal izatekoak, bai eta, beste kasu batzuetan, likidazio negatiboa izan duten toki-entitateen kargurako itzulketak aplikatu ahal izatekoak ere.

II

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, Administrazio Zentralari, autonomia-erkidegoei eta toki-korporazioei aplikatu behar zaien gastu-araua ezartzen du 12. artikuluan. Arauketa horren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1175/2011 (EB) Erregelamendua da; horren bidez Kontseiluaren 1466/97 (EE) Erregelamendua aldatzen da, aurrekontu-egoeren gainbegiratzea indartzeari eta ekonomia-politikak gainbegiratu eta koordinatzeari buruzkoa.

2012. urteaz geroztik toki-entitateak izan dira Administrazio Publikoan lehenak beren kontuetan superabita lortzen, aurrekontu-kontsolidazioan egin duten ahaleginari eta ekonomia-zikloaren bilakaera positiboari esker. Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua ezartzen du Estatuak, autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek lortzen duten superabita zorpetze garbia murrizteko erabili behar dela. Arau hori aplikatuz, toki-korporazio askok beren zor publikoaren maila nabarmen murriztea lortu dute, eta finantzak onbideratu dituzte.

Bada, kontuan hartuta toki-korporazioek egin duten kontsolidazio-ahalegina, lortu duten finantza-egoera sendoa eta ematen dituzten zerbitzuen izaera –toki-korporazioek ahalmen handia dute herritarren ongizatean zuzenean eragiteko, haiek baitaude herritarrengandik gertuen–, arau berezi bat ezarri zen apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikuluan jasotako superabitaren xedeari aplikatzeko. Hain zuzen ere, Sektore Publikoko Merkataritza Zorraren Kontrolari buruzko abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarria erantsi zion 2/2012 Lege Organikoari. Xedapen horri esker, 2014. urtetik aurrera, toki-korporazioek aukera daukate bizitza baliagarri osorako eta finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetara bideratzeko beren superabita. Horretarako, ordea, toki-korporazioek baldintza hauek bete behar dituzte: batetik, gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin positiboa eta superabita izatea; bestetik, beren zor publikoaren maila zorpetzea debekatzeko ezarritako mugaren azpitik egotea, eta, azkenik, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea ez izatea merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzko araudian ezarritako gehieneko

ordainketa-epea baino luzeagoa. Halako inbertsioetan egindako gastua ez da zenbatuko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluko gastu-araua aplikatzearen ondoretarako; baina, aitzitik, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearen ondoretarako zenbatuko da.

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren hamaseigarren xedapen gehigarriak garatzen eta definitzen du halako inbertsioek eduki beharreko finantza-jasangarritasunaren kontzeptua, bai eta haren prozedura eta aplikazioko eremu objektiboa ere (testu bategin hura martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Superabitaren xedea malgutzen duen neurri hori 2014an aplikatu zen lehenengoz. Harrezkero, urtean-urtean eutsi zaio, 2019ra arte, batzuetan Estatuko aurrekontu orokorrei buruzko legeetan eta beste batzuetan errege lege-dekretuen bidez.

Aparteko inguruabarren eraginez, ezin izan dira egin Estatuko 2020ko Aurrekontu Orokorraren izapideak, eta ezin izan da ezarri apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarrian arautzen duen luzapena. Gastua gauzatzeko prozedura hasteko eta garatzeko izapideek epe jakin batzuetan egin behar dira; horien arabera, neurriak ondorioak sortuko baditu eta toki-korporazioek beren inbertsioak aurrekontu-ekitaldi honetan egingo badituzte, ezinbestekoa da berehala onartzea apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen duen neurriaren indarraldia luzatzea, baliabide horiek azkar erabili ahal izateko pandemiak ekarri duen egoera ekonomikoa eta soziala onbideratzeko.

Beraz, presako eta aparteko inguruabarrak direla eta, beharrezkoa da luzapena errege lege-dekretu baten bidez onartzea, aurreko bi urteetan hauetan egin den bezala: 10/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa; 1/2018 Errege Lege Dekretua, martxoaren 23koa.

Orobat, aintzat hartu behar da superabitaren xedeari buruzko arau bereziaren indarraldiaren luzapena eraginkortasunik gabe geratuko litzatekeela baldin eta galdatuko balitz gastua exekutatzeko prozeduraren baimen-, xedapen- edo konpromiso-faseak kasu guztietan 2020an egitea; horregatik, azken fase horren garapena ez da ekitaldi horretan eskatu behar. Alabaina, horrek ez du kentzen arau hori presakoa izatea; izan ere, inbertsio-proiektu askoren kontratazio-prozedura –izaera eta diru kopurua ikusita– ahalik eta azkarren abiarazi behar da, gastua baimentzeko fasea oraingo ekitaldian amaitu ahal izan dadin.

2018ko superabita dela eta, aipatutako arau berezia aplikatzea onartu zen. Martxoaren 29ko 10/2019 Errege Lege Dekretuak bidea zabaldu zuen superabit hori finantzen aldetik jasagarriak diren inbertsioak estaltzeko, eta honako baldintza hauek ezarri ziren: 2019. urtean, gutxienez gastuak gauzatzeko prozedurako lehen fasea bete behar zen (gastua baimentzea), eta gainerako faseak (gastua konprometitzea edo xedatzea, betebeharra onartzea eta ordainketa agintzea) 2020an bete behar ziren. Inbertsio-proiektu asko, batez ere finantza-eragin handikoak, bertan behera utzi behar izan dira alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, eta, horregatik, 2020an gaitz izan da fase horiek osatzea, eta, kasu batzuetan, ezinezkoa. Beraz, aparteko neurria ezarri behar da faseok 2021. urtean amaitu ahal izateko. Nolanahi ere, gutxienez konpromisoaren edo xedapenaren fasea 2020an bete behar litzateke, proportzionaltasunaren printzipioa kontuan hartuta eta kontratisten segurtasun juridikoa hobetzea helburu hartuta.

III

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak lehenengo xedapen gehigarrian toki-entitateak finantzatzeko ezartzen dituen tresna osagarrien esparruan, Toki Entitateak Finantzatzeko Funtza eratu zen. Funtz hori 17/2014 Errege Lege Dekretuak arautzen du (17/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 26koa, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzkoa), eta hiru atal dauka: Antolamendu Funtza; Ekonomia Bultzatzeko Funtza; Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtza (azkena likidatzen ari da).

Hori dela eta, errege lege-dekretu honen bidez ezartzen diren neurriek honako hauei eragiten diete: Antolamendu Funtzaren eremu objektiboari, likidatzen ari den Hornitzaileei

Ordaintzeko Finantzaketa Funtzarekin itundutako zorpetze-eragiketei eta toki-entitateek funts haietatik kanpo formalizatutako epe laburrerako kreditu-eragiketa guztiei.

Antolamendu Funtzaren eremu objektiboa handituta, honako zor hauek finantzatu ahal izango dira: hartzekodun publikoekin (batez ere, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin) hartutako zorrak; hain zuzen ere, Estatu zergen partaidetzaren atxikipenen bidez konpentsatzen ari direnak edo hartzekodun horiekin sinatuak dituzten zorra zatikatzeko eta geroratzeko akordioen bitartez kitatzen ari direnak. Neurri horren hartzaileak 17/2014 Errege Lege Dekretuaren 39.1 artikuluan azaltzen diren finantza-arriskuak batean dauden udalak dira, hau da, finantza-egoera negatiboan daudenak edo zorrak finantza-zuhurtziaren arabera birfinantzatzeko aukerarik ez dutenak.

Funts horren eremu objektiboa handitzeari esker, finantza-egoera negatiboan dauden udalek hartzekodun publikoekin dauzkaten zorrak kitatu ahal izango dituzte, haien ordeztu mailegua hartuta Toki Entitateak Finantzatzeko Funtsetik, eta egunean ipini ahal izango dira zerga-zorren eta Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketan; hori ezinbestean bete beharreko baldintza da beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzak eta laguntzak jasotzeko, eta, egungo egoeran, horiek funtsezkoak izan daitezke neurri honen onuradun izan daitezkeen udal horien finantza-arazoak ez larritzeko.

Gainera, azken bi ekitaldietako batean likideziarekin edo kaudimenarekin arazoren bat eduki duten toki-entitateek epe laburrerako zorra epe luzerakoan kontsolidatu ahal izango dute. Neurri horri esker, diruzaintzako estatusunak arindu ahal izango dira, egiturazko arazo hauek dauzkaten udalerrietan batez ere: diru-sarrera arrunt nahikorik ez izatea gastu arruntei aurre egiteko eta mailegu-eragiketak amortizatzeke, edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin negatiboak izatea.

Azkenik, finantza-laguntzako neurriei dagokienez, toki-entitateen zorren esparruan, Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtzarekin formalizatutako maileguak kitatu ahal izango dituzte eta haien ordeztu maileguak hartu ahal izango dituzte kreditu-entitateetan (funts hori likidatzen ari da); gainera, doikuntza-planaren ondoriozko betebeharretik salbu egon ahal izango dira finantzak osasuntsu dauzkaten toki-entitateak, baldin eta horri esker ondoz ondoko zenbait ekitalditan zerga-arauak bete badituzte eta, beraz, planak onartu zirenean zeuzkaten desorekak zuzentzeko ibilbidea sendotuzat jo ahal bada.

Neurri horiek guztiak apartekoak eta presazkoak dira, finantzetan zuzendu gabeko ahuleziak edo desorekak dauzkaten toki-entitateei aukera emango baitiete azkar heltzeko pandemiaren ondorioz ohi ez bezala sortu diren beharrian ekonomiko eta sozialei.

IV

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen proiektua izan ohi da toki-entitateek Estatuaren zergetan daukaten partaidetza eguneratzeko tresna. Hala ere, bai 2019an, bai 2020an, Espainiako Konstituzioak 134.4 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, Estatuaren aurrekontu orokorren luzapen automatikoa aktibatuta zen urtarrilaren 1ean, eta gaur egun, 2020ko ekitaldia oso aurreratuta dagoela, luzapen horrek indarrean segitzen du.

Aurrekontuak luzatuta zeudela, araubide erkidea duten autonomia erkidegoek eta toki-entitateek 2019. urterako egin beharreko konturako ekarpenen aparteko eguneratzea arautu zuen urriaren 11ko 13/2019 Errege Lege Dekretuak. Horri esker, aparteko doikuntza teknika egin zen herritar guztien interesen alde, ohiko bidetik (Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea) neurri egokiak ez onartzeak lurraldeetako administrazioei egingo zizkien kalte handiak saihestu ziren, 2018. urterako aurreikuspenen eta 2019. urterakoen arteko diferentziaren ondoriozko baliabide-gehikuntza eman zitzaizkien toki-entitateei, eta Estatuaren 2019ko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuan ezarritako zerga-neurrien ondorioak ezabatu ziren, ezarri baitzen Estatuaren zergen lagapenaren aurretik bildutako diru kopurua soilik hartuko zela kontuan (izan ere, zerga horiek funtsezkoak dira toki-entitateen finantzaketarako).

Ministro Kontseiluaren 2020ko urtarrilaren 21eko erabakiarekin bat etorritik, 2020. urtean bere hartan mantenduko dira 2019an Estatuaren zergen partaidetza-ereduen aplikazio-eremu subjektiboko toki-entitateei kontura emandako diru kopuru guztiak.

Nolanahi ere, diru kopuru horiek emateko transferentziak finantzatzeko kredituak, gaur egun kudeatzen ari direnak, Estatuaren 2018. urteko aurrekontu orokor luzatuetan ezarritakoak dira, eta ez dira nahiko aurrekontu-beharrizanei erantzuteko; horregatik, 2019an gertatu zen bezala, kreditu-gehigarriak onartu behar dira konturako ekarpenak Estatuaren aurrekontu orokorren 36. atalaren bidez gauzatzen dituzten gastu-kredituak egokitzeko, ekarpenok ordaindu ahal izateko.

Halaber, 2020. urtean, kalkulatu behar da zenbat izango den toki-entitateek Estatuko zergetan duten partaidetzaren 2018ko behin betiko likidazioa. Partaidetza hori Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginak arautzen du (testua martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen): 111-126 artikuluetan, udalei dagokiena, eta, 135-146 artikuluetan, probintzietan eta antzeko entitateei dagokiena. Manu horiek urtero garatzen dira Estatuako kasuan kasuko ekitaldiko aurrekontu orokorren legean. 2020ko Aurrekontu Orokorren Legea onartu gabe dagoenez, likidazio hori kalkulatzeko, arau batzuk jarri behar dira, Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren Legeak ez baititu zehazten. Horixe da errege lege-dekretu honen xedea; gainera, ez du aldatzen toki-entitateen egungo finantza-araubidea, arau haiek ekitaldi guztietan aplikatu behar direnez gero.

V

Gaur egun toki-entitateek bankuetan dauzkaten kontuek eta gordailuek interes-tasa negatiboak dauzkate. Horregatik, udalei, probintzia-diputazioei eta uharte-kontseiluei aukera ematen zaie beren borondatez konpromisoa har dezaten 2019ko abenduaren 31n gastu orokorretarako eduki dituzten diruzaintzako gerakinen besteko finantza-baliabideak jartzeko Estatuako Administrazio Orokorraren esku.

Zenbateko hori Estatuako Administrazio Orokorraren esku jartzeko, baliabide horiek Estatuako Administrazio Orokorrari transferitzeko konpromiso irmo, lotesle eta uko egin ezinekoa bidali behar zaio Ogasun Ministerioari 2020ko irailaren 15erako. Konpromisoak 2021eko abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean. Aldi horretan, konprometitutako baliabideak emateko eskatuko die Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak toki-entitateei.

Eragiketa mailegua izango da, toki-entitateek Estatuako Administrazio Orokorrari emana, eta zenbatekoa aurreko apartatuan adierazitakoa izango da. Mailegu-eragiketa egintza bakar batean gauzatuko da, Estatuako Administrazio Orokorrak funtsak jasotzen dituen Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiaren kontu batean, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako horretan. Maileguak ez dira formalizatu behar, eta Estatuaren zorrak izango dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2006 Lege Orokorrak ezartzen duenarekin bat etorritik.

Estatuako Administrazio Orokorrak hamabost urteko aldiaren amortizatuko du mailegua, gehienez, 2022. urtetik zenbatuta. Eragiketaren finantza-baldintzak finkatu aurretik kontsulta egingo zaio Estatuan kide gehien daukan toki-entitateen elkarteari, 2020ko abuztuaren 7a baino lehen. Nolanahi ere, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez onartuko da, eta ebazpena 2020ko abuztuaren 20rako argitaratuko da, beranduenik ere. Ordutik aurrera, toki-entitateek bat egitea erabaki ahal izango dute; horretarako, Estatuako Administrazio Orokorrari finantza-baliabideak uzteko konpromisoa bidali behar dute.

Mailegu horietarako ezartzen den urteko interes-tasa ezin da izan Estatuaren zorraren finantzaketaren kostua baino gehiago, horren barruan sartzen direla Estatuako Administrazio Orokorrak egiten dituen eragiketek eragiten dituzten finantza-kostuak eta bestelako kostuak.

Beste alde batetik, Estatuako Administrazio Orokorrak kreditu berezi bat emango du suspertze ekonomiko eta sozialerako. Toki-entitateek konprometitutako baliabideen ehuneko 35 izango da gutxienez, eta guztira ezin da izan 5.000 milioi eurotik gorakoa. Kreditu horren kargura, konpromisoak jasotzen direnetik hilabete pasatu baino lehen transferentzia arruntak egingo zaizkie toki-entitateei, bakoitzari berak konprometitutako zenbatekoaren proportziozkoa. Toki-entitateek honako arlo hauetako jarduketak

finantzatzeko erabiliko dira transferentziak: hiri-agenda eta hiriko mugikortasun jasangarria, hurbileko zaintzak, eta kultura. Transferentzia horiek honetara egingo ditu Estatuko Administrazio Orokorrak: 2020. urtean, toki-entitateek konprometitutako ekarpenen ehuneko 40, 2.000 milioi euro gehienez; 2021. urtean, gainerako ehuneko 60, 3.000 milioi euro gehienez.

Halaber, Estatuaren aurrekontu orokorretan kreditu berezi bat gaitzen da toki-entitateek finantzabide gehiago eduki ditzaten COVID-19aren pandemiaren eraginez beren titulartasuneko garraio-zerbitzu publikoetan sortu den ezohiko defizitari aurre egiteko. Kreditu horren hasierako zenbatekoa 275 milioi euro izango da; nolahi ere, beharrezkoa izanez gero, 400 milioi euroraino gehitu liteke, baldin eta toki-entitateen kontu-hartzailetzako organoen titularrek egindako ziurtagirien arabera guztiz justifikatuta badago. Aipatutako ezohiko defizita alarma-egoeraren ondorioz 2020ko amaierara arte sortzen dena da, eta finantzatzeko den zenbatekoa garraio-zerbitzuak erreferentzia-urte batean tarifen arabera sortutako diru-sarreraren ehuneko 33 izango da.

Toki-entitateentzako azken neurria honako hau da: toki-entitateei aukera ematen zaie 2019ko superabita (edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, gehiago bada) 2020ko gastua finantzatzeko erabiltzeko, baldin eta ekitaldi honen amaieran aurrekontu-oreka gordetzen badute.

Likidezia-arazoak dauzkaten edo finantza-arriskuan dauden udalei lagundu nahian, ezartzen da probintzia-diputazioek eta unitate baliokideek, bakoitzak bere eskumenen esparruan (eskumenen erregulazioa: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, 36. artikulua), lankidetzan jardun behar dutela, beren lurralde-eremuko udalei laguntza ekonomikoa ematen zehazki, batez ere 20.000 biztanletik beherakoei, eta, horretarako, bi tresna baliatzen dira: batetik, maileguak edo kreditu-eragiketak egin ahal izatea 2019ko ekitaldiaren itxieran aurrezki garbi edo diruzaintzako gerakin negatiboa eduki duten udalekin; bestetik, udal horiei xede jakineko transferentzia arruntak egin ahal izatea 2019ko superabitaren kargura, eta transferentzia horiek, salbuespen gisa, 2020. urtean finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetat hartzea eta ez zenbatzea gastuaren arauan.

Adierazitako egoeran dauden udalantzako laguntzen esparrua osatzeko, agintzen da 2020ko ekitaldia amaitu baino lehen azterlan bat egiteko Toki Entitateak Finantzatzeko Funtzarekin formalizatutako maileguen finantza-baldintzak berrikusterik dagoenez argitzeko. Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak erabaki ahal izango du eragiketa haiek eta zerga-baldintzak aldatzea, pandemiaren ondorioak arintzeko eta toki-entitateen finantzak onbideratu ahal izateko.

VI

Errege lege-dekretu honek aukera ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiei eta Kanaria uharteetako kabildoei 2020ko ekitaldian aplikatzeko, kontabilitate nazionalari dagokionez, 2019ko ekitaldiaren itxierako aurrekontuko superabita, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoaren arabera itundutako Estatuaren zergen diru-sarreretan eta Kanarietako ekonomia- eta zerga-araubidearen arabera Kanarietako Finantzaketa Multzoa osatzen duten zergen diru-sarreretan COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz gertatu den murrizketa konpentsatzeko (Kanarietako ekonomia- eta zerga-araubidea: Kanarietako zeharkako zerga orokorra eta Kanaria uharteetako ekoizpenaren eta inportazioen gaineko ariela). Aukera horretaz baliatzearen ondorioz, administrazio publiko horien zorpetze garbia ezin da gehitu 2020ko ekitaldiaren itxierarako.

2011ko irailaren 27an, Konstituzioaren 135. artikulua moldatu zen. Testu berrian, berriaz ezarri zen toki-entitateei aurrekontu-orekaren printzipioa aplikatu behar zaiela, eta, gero, hori apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.4 artikuluan ere ezarri zen. Gainera, Konstituzioaren 135. artikuluan, administrazio publikoen zorren mugak aipatzen dira, eta horiek ere 2/2012 Lege Organikoan garatzen dira. Orobat, bi zerga-arau horiek (aurrekontu-egonkortasunarena eta zor publikoarena) direla eta, Konstituzioaren 135.5 artikuluan xedatzen da lege organiko baten bidez arautuko dela nola eta noizko zuzendu behar diren arau horiei dagokienez gertatzen diren desbideratzeak. Zuzenketa-neurrietako

bat apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikuluan zehazten eta arautzen diren plan ekonomiko-finantzarioetan gauzatu zen.

Nolanahi ere, gastu-araua 2/2012 Lege Organikoak ezarri zuen zuzenean. Lege horrek zioen azalpenean Europako arautegiarekin lotu zuen gastu-araua; horren arabera, administrazio publikoen gastua ezin da gehitu erreferentziako barne-produktu gordinaren hazkunde-tasa baino gehiago. Eta lege organiko horrek plan ekonomiko-finantzarioen neurri zuzentzailea ezartzen du gastu-araua betetzen ez den kasuetarako. Halaber, 2020ko martxoaren 20an, Europako Batzordeak komunikazioa bidali zion Europar Batasunaren Kontseiluari, eta haren bidez adierazi zion ezen, ikusirik COVID-19aren pandemiak seguruenik atzeraldi ekonomikoa ekarriko duela, bidezkoa dela Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula aktibatzea. Komunikazio hartan, Batzordeak Kontseiluari eskatu zion bat egin zezala ondorio horrekin, eta Kontseiluak 2020ko martxoaren 23an berretsi zuen.

Laburbilduz, hiru zerga-arauetako bi, aurrekontu-egonkortasunarena eta zorrarena (eta hori zuzentzeko plan ekonomiko-finantzarioetan islatzen den neurria), Konstituzioaren manu batean oinarritzen dira; beste alde batetik, gastu-araua (eta hori zuzentzeko plan ekonomiko-finantzarioetan islatzen den neurria) apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoan oinarritzen da, eta hau lotuta dago Europako arautegiarekin, zeinak gaur egun lehen aipatutako klausula aktibatzeko aukera ematen baitu.

Beste alde batetik, administrazio publikoen multzoko toki-korporazioen azpisektoreak superabita eduki du urtero-urtero 2012az geroztik eta amortizazio handiak aplikatu ditu zor publikoan, eta, ondorioz, azpisektore horrek behin eta berriro bete ditu berari ezarritako zor-mugak. Horren ondorioz, toki-korporazioek geroz eta diruzaintzako gerakin handiagoak dauzkate. Diruzaintzako gerakinak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean onartzen diren kreditu-aldaketen oinarritzko finantzabideak dira; horrenbestez, eragin handia eduki dezakete gastu-araua bete gabe uzteko orduan eta plan ekonomiko-finantzarioak eskatzeko orduan. Pandemia gaur egun nola dagoen ikusita, pentsatzekoa da seguruenik toki-entitate saneatuek diruzaintzako gerakinak erabili beharko dituztela gaixotasunaren ondorio negatiboak arintzeko.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da plan ekonomiko-finantzarioa aurkeztu beharra kentzea aurrekontu-egonkortasunaren helburua eta zorpetze-mugak betetzen dituzten toki-entitateei, toki-ogasunak arautzen dituen legerian eragiketa horiek baimentzeko ezartzen den araubidearekin bat etorritz.

Beste alde batetik, UEFAk adierazi du Bilbok eta Donostiak eraturako hautagaitza hautatu duela «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala bertan egiteko, eta, horretarako, berariazko zerga-araubidea beharko da.

Araubide hori errege lege-dekretu honen bidez zuzenbide positiboan txertatzeko bi arrazoi daude: batetik, aipatutako ekitaldia laster izango da, eta hartarako gutxi falta dela egin da iragarpena; bestetik, ekitaldia jokatu baino nahikoa denbora lehenago eduki behar da prest aplikatuko den zerga-esparrua, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko. Beraz, errege lege-dekretu hau aparteko presaz onartu behar da, Espainiako Konstituzioak errege lege-dekretua onartzeko eskatzen duen bezala.

Beste alde batetik, 2020ko urriaren 31ra arte balio erantsiaren gaineko zergaren tasa ehuneko zero izango da COVID-19aren kontra borrokatzeko osasun-materialen Batasunaren barruko entregetan, inportazioetan eta eskurapenetan hartzaileak erakunde publikoak, irabazteko asmorik gabeko entitateak eta ospitaleak direnean. 2020ko uztailaren 31ra arte tasa honen aplikazioa 15/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen zuen, 8. artikuluan (15/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 21ekoa, Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarriena). Horrenbestez, zero tasaren aplikazioaren indarraldia luzatzen da, bermatzeko osasun-sistema erantzuteko gauza izango dela pandemia kontrolatzeko bigarren fasean, normaltasun berria hasi ondoren.

Gainera, neurri hori aplikatu ahal zaien ondasunen zerrenda eguneratzen da (eguneratzeak 15/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen denetik sortuko ditu ondorioak).

Hori dela eta, subjektu pasiboek, behar den kasuetan, errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik jasanarazitako edo ordaindutako balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoak zuzenduko dituzte, zergaren arautegiarekin bat etorritz.

Nazioarteko pandemiak eta horrek eragin duen alarma-egoerak inoiz ez bezalako osasun-krisia ekarri dute, oso zabala eta larria, bai kutsatzeko arrisku apartagatik eta gaixotutako herritarren kopuru handiagatik, horrek guztiak osasun-zerbitzuen gainean dakarren presioarekin, bai estatuek hartutako geldiarazte- eta urruntze-neurri berezien ondoriozko kostu sozial eta ekonomiko handiagatik.

Hain zuzen ere, egoeraren bilakaerara egokitu beharrez, zenbait neurri hartu behar izan dira pandemiari aurre egiteko. Horren ildotik, 19/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen (maiatzaren 26koa, COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituen nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan), eta horren 9. artikuluan ezartzen da laneko istripuaren ondoriozko laneko kontingentziatzat hartuko direla alarma-egoeran osasun-zentroetako eta zentro soziosanitarioetako langileek SARS-CoV2 birusaren kutsaduraren ondorioz jasaten dituzten gaixotasunak.

Aipatutako 9. artikulua 2. apartatua xedatzen denarekin bat etorritz, neurri hori alarma-egoera amaitu ondoko hilera arte gertatzen ziren SARS-CoV2 birusaren kutsapenetan aplikatuko zen, eta kutsapena hala gertatu zela frogatzeko laneko istripuaren txostena aurkeztu behar zen, aipatutako aldiaren barruan egina. Beraz, 2020ko uztailera arteko kutsapenen ondoriozko laneko kontingentziak onartuko ziren.

Horrenbestez, alarma-egoeran hartutako neurrietako batzuen indarraldia amaitu denez gero, eta osasun-larrialdia behar bezala kudeatzen dela bermatzeko, gaixotasunaren hedapena gelditzeko eta osasun-sistema nazionala herrialde osoan erantzuteko gauza dela bermatzeko asmoarekin, nahitaez eutsi behar zaio alarma-egoeran osasun-zentroetako eta zentro soziosanitarioetako langileek SARS-CoV2 birusaren kutsapenen ondorioz jasaten dituzten gaixotasunak laneko istripuaren ondoriozko laneko kontingentziatzat hartzeko neurriari, harik eta osasun-agintaritzek osasun-krisi honi aurre egiteko ezarritako prebentzio-neurri guztiak kentzea erabaki arte, hain zuzen ere.

Gainera, arau bereziak ezartzen dira enpresa estrategikoen kaudimena bultzatzeko funtsari atxikitako sozietateen dibidenduak banatzeko eta partaidetzak eskualdatzeko. Neurri hori presaz ezarri behar da, Europar Batasunarekin funts hori abian jartzeko hitzartutako epea bete behar baita. Funts hori COVID-19aren pandemiaren ondorioz enpresa estrategiko batzuk dauden egoera ekonomiko larriari aurre egiteko sortu da.

Beste alde batetik, Ogasun Ministerioak jokoaren arloan esleituta zeuzkan eskumenak Kontsumo Ministerioari esleitu zaizkio, 495/2020 Errege Dekretuaren 2. eta 4. artikuluen bidez (495/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Kontsumo Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta Ministerioetako Departamentuen Oinarritzko Egitura Organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Dekretua aldatzen duena), honako hauek izan ezik: zergen arloko politika orokorra aztertzea eta zehaztea; zerga-araubidea proposatzea, prestatzea eta interpretatzea; jokoaren kudeaketa administratiboaren ondoriozko tasak kudeatzea eta likidatzea, 689/2020 Errege Dekretuak 2.1.f) artikuluan xedatzen duen bezala (689/2020 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Ogasun Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta Ministerioetako Departamentuen Oinarritzko Egitura Organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen duena). Horregatik, ezinbestekoa da aldatzea 13/2011 Legearen lehen xedapen gehigarria (13/2011 Legea, maiatzaren 27koa, jokoaren arautzen duena) eta 3/2013 Legearen bigarren eta hamargarren xedapen gehigarriak (3/2013 Legea, ekainaren 4koa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzen duena), adierazteko jokoaren kudeaketa administratiboaren ondoriozko tasen kudeaketa eta bilketa Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egitekoak direla.

Ziurtagiri elektronikoa kualifikatua eskatzen dutenen identifikazioari dagokionez, 910/2014 (EB) Erregelamenduak 24.1 d) artikuluan ezartzen du egiaztapena egiteko estatu bakoitzean onartutako beste identifikazio-metodo batzuk erabil daitezkeela baldin eta ematen duten segurtasuna presentzia fisikoak ematen duenaren bestekoa bada (910/2014

(EB) Erregelamendua, 2014ko uztailaren 23koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Barne-merkatuko transakzio elektronikotarako konfiantza-zerbitzuei eta identifikazio elektronikolari buruzkoa eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena).

Horren ondorioz, Espainiako zuzenbidean berariazko erregulazioa behar dugu identifikazio-metodo horiei aplikatzen zaizkien antolamenduko eta segurtasuneko baldintza zorrotzei buruz.

Horretarako, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioari, konfiantzazko zerbitzu elektronikoko arautzeko eskumena daukan aldetik, ahalmena ematen zaio baldintza eta betekizun horiek ezartzeko.

Errege lege-dekretu honen seigarren xedapen gehigarriaren eta azken xedapenetako bosgarrenaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen dira 2019/692 (EB) Zuzentaruak legerian ezartzen dituen aldaketa batzuk (2019/692 (EB) Zuzentaruak, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko apirilaren 17koa, Gas Naturalaren Barne Merkaturako Arau Erkideei buruzko 2009/73/EE Zuzentaruak aldatzen duena). Batasunaren barruan gas naturalaren merkaturak erabat gauzatzeko eragozpenak kentzea da asmoa; hain zuzen ere, Batasunaren arauak Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideei eta gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideei ezin aplikatu izateak sortzen dituen eragozpenak ezabatzea. Errege lege-dekretuaren figura juridikoa erabiltzeko eskatzen den aparteko eta presako beharrezko justifikatuta dago, (EB) 2019/692 Zuzentaruaren transposizioa ezarritako epealdian ez egiteak ekar litzakeen ondorioak murriztu behar baitira (epealdia 2020ko otsailaren 24an amaitu zen).

Seigarren xedapen gehigarrian, 2009/73/EE Zuzentaruaren 49 bis artikulua dela bide, aldi baterako salbuespena ezartzen da honako gasbide hauetarako: Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa garraiatzen duten gasbideak, 2019ko maiatzaren 23a baino lehen amaituak eta Batasunaren barruko sareko lehen konexio-puntua Espainian dutenak. Salbuespen horren arabera, gasbide horiek hamabi hilabetez ez dituzte bete behar garraio-jardueren eta merkaturatze-jardueren jabetza bereizteari buruzko baldintzak, ez eta Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak instalazioetara sartzeko araututako bidez ezartzen dituen baldintzak ere. Salbuespenak onartu ondoren haiek Europako Batzordeari jakinarazteko epealdia joan den maiatzaren 24an amaitu zen. Horregatik, ezinbestekoa da ahalik azkarren ezartzea horretarako prozedura Espainiako ordenamendu juridikoan. Horrez gainera, iraupen luzeagoko salbuespena ezartzeko aukera aztertzeko eta salbuespena onartzeko tresna arautzen da.

Hamargarren xedapen gehigarriaren bidez, erantzuna ematen zaio COVID-19aren krisiak elektrizitatearen eskarian eta prezioetan sortu dituen ondorioen eraginez sistema elektrikoaren araupeko diru-sarreretan izan den beherakadari. Izan ere, pandemiaren ondorioz gutxitu egin dira bai bidesarien diru-sarrerak (zuzeneko proportzioan daude kontratatutako potentziarekin eta kontsumitutako energiarekin), bai Jasangarritasun Energetikorako Neurri Fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeak sortutako zergei lotutako diru-sarrerak (horiek kontsumitu eta sortutako elektrizitatearen kopuruaren eta energia horrek merkatuan duen balioaren arabera dira).

Oraindik ez dago argi nolakoa izango den azken ondorioa urteko balioetan, baina, esku artean dauzkagun araupeko diru-sarreraren eta kostuen zenbatespenak kontuan hartuta, neurriak hartu behar dira ahalik eta txikiak izan daitezkeen ekitaldiko aldi baterako desbideratzeak, likidazioa aplikatzen zaien subjektuen likideziaz eragiten diotenak, eta ekitaldiaren itxieran gerta litezkeen aldi baterako desorekak, berez ekarriko luketenak bidesariak eta karguak gehitzea, 24/2013 Legeak 19. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa).

Inguruabar horiek guztiak kontuan edukita, beharrezkoa da gehitzea berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteetan sortzen diren diru-sarreraren transferentzien gehieneko muga; beraz, honela gelditzen da muga: guztira bildutakoaren ehuneko 90, 1.000 milioi euro gehienez.

Neurri honen aparteko eta presazko beharrezko justifikatuta dago, ez onartzeak ondorio kaltegarriak edukiko bailituzke sistema elektrikoaren likidazioa aplikatzen zaien subjektuen likideziaz eta elektrizitate-kontsumitzaileengan.

Beste alde batetik, sozialki bidezkoa den trantsizio ekologikorako agenda beteko bada, aurrez eragin eta arriskuekiko kalteberatasuna eta emisioak murriztu behar dira. Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legearen proiektuan, konpromisoa hartu dugu klima-neutraltasunerara 2050. urtea baino lehen iristeko. Eraldakuntza handiak gertatuko dira sektore guztietan, eta, aldi berean, modernizatzeko aukera onak sortuko dira. Gainera, gure herrialdea munduko klima-aldaketaren «gune beroetako bat» da; horregatik, inbertsioak egin behar ditugu herrialde seguruagoa eta ahulezia gutxiagokoa eraikitzeko, eta, horretarako, gure erantzuteko gaitasuna hobetuko duten neurriak sustatu behar ditugu.

Horrenbestez, eta Europako Itun Berdearen ildotik, lehentasuna eman beharko zaie arriskuak txikitzeaz gainera berotegi-efektuko gasen isurketa murrizten duten ekintzei, hots, klima-aldaketaren kontrako borrokaren bi eremu horietan onuragarriak izango diren neurri integralei. Gainera, beharrezkoa da elektrizitate-sorkuntzaren sektorea edo industria deskarbonizatzeko ahalmen handia duten teknologia berriak ezagutarazteko proiektu enblematikoak bultzatzea, erabateko eta goitik beherako eraldakuntza ekarriko dutenak.

Horrek justifikatzen du berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteetan sortzen diren diru-sarrerak klima-aldaketaren kontrako borrokarako ekintzetara bideratzeko egiten diren transferentzien gehieneko muga arintzea; muga guztira bildutakoaren ehuneko 10 izango da, eta 100 milioi euro gehienez.

Hamaikagarren xedapen gehigarriaren justifikazioa da ezinbestekoa dela Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak hitzarmenak sinatzea autonomia-erkidegoetako osasun sailekin edo INGESArekin, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko garrantzitsuenetako bat –aldi baterako ezintasunaren prestazioa–eta hark sortzen duen gastua kontrolatzen jarraitzeko, hitzarmenok oso baliagarriak izan baitira xede horretarako. Hain zuzen ere, hitzarmen horien izapideak azkar egingo badira, ezinbestekoa da hitzarmen horiei ez aplikatzea Aurrekontuen Lege Orokorrak 47. artikulua 1. apartatua xedatzen duena, hau da, gastua konpromisoa hartzen den ekitaldi berean gauzatzen hasi behar dela.

Azken xedapenetako seigarrenari dagokionez, 39/2015 Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) eta 40/2015 Legeak (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena) funtsezko aldaketa eragin dute Espainiako administrazio publikoetan arau-esparruaren aldetik, ezartzen baitute administrazio-prozeduretako izapideak modu elektronikoa egingo direla batik bat, administrazio-eredua gardenagoa, azkarragoa eta herritarrentzat eta enpresentzat eskuragarriagoa izan dadin eta beraren kudeaketa efizienteagoa izan dadin.

Espainiako administrazio publiko guztiak apurka-apurka eredu berri horretara moldatu beharra urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenean ezartzen zen. Haren arabera, zenbait manuren indarraldia ez zen hasiko legea indarrean jartzen zen egunean, baizik eta 2018ko urriaren 2an, erabaki baitzen *vacatio legis* zabalagoa beharko zela, kontuan hartuta manuok gai garrantzitsuei buruzkoak zirela, ondorio praktiko handiak edukiko zituztela eta eragina izan zezaketela herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten eskubideen erabileran. Honako gai hauek arautzen dituzten xedapenak dira: ahalordetzeen erregistro elektronikoa; erregistro elektronikoa; enplegatutako publiko gaituen erregistroa; Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoa; artxibo elektronikoa bakarra.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrena 11/2018 Errege Lege Dekretuak aldatu zuen (11/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 31koa, Langileekiko pentsio-konpromisoak babestearen, kapital-zuriketa prebenitzearen eta hirugarren herrialdeetako nazionalen sarrera- eta bizileku-eskakizunen arloko zuzentarauen transposizioa egiten duena eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzen duena). 11/2018 Errege Lege Dekretuak 6. artikuluan 2020ko urriaren 2ra arte atzeratu zuen aipatu diren bost gai horiei buruzko aurreikuspenen indarraldiaren hasiera, 2018ko urriaren 2rako ezarrita baitzegoen.

COVID-19ak eragin duen osasun-krisiaren ondorioz, azken hiletan administrazio publikoek lehentasuna eman behar izan diote giza baliabideak eta baliabide teknologikoak egungo azpiegitura eta bitarteko teknologikoak sendotzera bideratzeari, funtzionamenduan jarrai dezaten, beren enplegatuek lantokira joan gabe lanean jarrai dezaten eta herritarrek

eta enpresek beren eskubideak erabili ahal izan ditzaten. Kasu askotan, lehenetsun hori jarri beharrak zaildu egin du administrazio-prozedurak eredu berrira moldatzeko lanak aurreikusitako erritimoarekin egitea, bai eta urriaren 1eko 39/2015 Legean ezartzen den guztia azken xedapenetako zazpigarrenean finkatzen den egunerako betetzeko behar diren kudeaketa-prozesu egokiak diseinatzea ere. Nolanahi ere, helburu hori lege horren eremu subjektibo osoan aplikatu behar da, eta guztira hamaika mila eta zortziehun subjektu inguru dira, honako hauek hartzen baititu: Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, toki-administrazioentzako entitateak, eta horien guztien sektore publiko instituzionalak, bi legeek ezartzen dutenarekin bat etorritik.

Horrenbestez, ikuspegi teknikitik eta antolakuntzaren aldetik, agerikoa da oso litekeena dela administrazio-prozedurak eredu berrira moldatzeko lanak ez amaitzea 2020ko urriaren 2rako; horrek eragina edukiko luke bai interesdunen eskubideen erabileran, bai administrazio publiko guztien arteko elkarreragingarritasunean. Horregatik, egokitzat jotzen da 2020ko urriaren 2an indarrean jarri behar ziren xedapenen indarraldiaren hasiera beste sei hilabete atzeratzea, 2021eko apirilaren 2ra arte. horri esker, aurre egin ahal izango zaie giza baliabideen eta bitartekoen artean lehenetsunak aldatu behar horren eraginez administrazio publikoek beren eskumeneko lanen egutegietan jasandako ondorioei eta atzerapenari eta burutu ahal izango da administrazio publikoek eraginkortasun administratiboaren printzipioarekin eta herritarren eta eragile juridikoek eta ekonomikoek administrazio-prozeduren izapideetan dauzkaten eskubideen bermearen printzipioarekin bat etorritik jarduteko oinarritzekoak diren tresna horiek ezartzeko prozesua (urriaren 1eko 39/2015 Legeak, hain zuzen, printzipio horiek bete nahi ditu).

Azken xedapenetako zortzigarrenak uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen du; hain zuzen ere, RENOVE programa arautzen duen zatia (ibilgailu berriak jasangarritasun-irizpideak eta irizpide sozialak aintzat hartuz erosteko laguntzen programa da RENOVE). Horren bidez, ordaintzeko prozedura argitzen da, aurrekontuko partida aldatzen da eta programa kudeatzen duen entitate laguntzaileari ahalmena ematen zaio onuradunen artean funtsak banatzeko; horri esker, programaren efizientzia hobetu da eta administrazio-zamak aurreztu dira. Horrez gainera, zehaztu egiten dira renting-eragiketetan ibilgailuaren titulartasuna atxikitzeari dagokionez onuradunek dituzten betebeharrekin lotutako zenbait kontu.

Azken xedapenetako bederatzigarrenak ezartzen du Gizarte Segurantzaren aurrekontuko kreditu batzuk handitu egin daitezkeela; hain zuzen ere, jarduera uzteagatik babes-sistemak dituen eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 329. artikuluan arautzen diren betebeharrak betetzeko kredituak, eta 8/2020 eta 24/2020 errege lege-dekretuek berekin dakartzaten gastuei aurrekontu-estaldura egokia emateko arautzen dituzten betebeharrak betetzeko direnak (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena, eta 24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Enplegua suspertzeko eta lan autonomoa babesteko gizarte-neurriena eta industria-sektorearen lehiakortasunarena). Izan ere, hartzen diren obligazioen zenbatekoa ez da izango aurrekontu-kredituan esleitutakoaren araberakoa, baizik eta gastu horietarako ematen diren prestazioen araberakoa izango da azkenean kreditua.

VII

Errege lege-dekretu honek hamasei artikulua dauzka, hiru titulutan bilduta, eta, horrez gainera, hamaika xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bakarra eta hamalau azken xedapen.

Lehen tituluak bederatzia artikulua dauzka. Bertan, honako gai hauek arautzen dira: toki-entitateen superabita finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioak finantzatzeko erabiltzeko arau berezia; diruzaintzako gerakinak garrantzi sozial handiko sektore batzuetan osasun-krisiaren ondorioz egiten diren gastuak finantzatzeko erabiltzeko jarduketak; kreditu bereziak baimentzea ekonomia eta gizarte suspertzeko eta toki-entitateen garraio-zerbitzu publikoetan gertatu den ezohiko defizitari aurre egiteko;

likidezia-arazoak dauzkaten edo finantza-arriskuan dauden udalei laguntzeko neurriak; aurrekontuak kudeatzeko aparteko eta presazko beste arau batzuk.

1. artikuluan, luzapena ezartzen da 2019ko superabita 2020an ere helburu horretarako erabili ahal izateko.

2. artikulua, salbuespen gisa, aukera ematen du 2019ko ekitaldian 2018ko superabitarekin finantzatzen hasitako inbertsio jasagarrien proiektuak gauzatzeko prozedura luzatzeko.

3. artikulua ezartzen du udalek, probintzia-diputazioek eta uharte-kontseiluek konpromisoa har dezaketela Estatuko Administrazio Orokorraren esku jartzeko beren diruzaintzako soberakinak, hain zuzen ere gastu orokorretarako gerakinetakoak, aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketen hartzekodunen kontuetako saldoen eta bidegabe jasotako diru-sarreraren itzulketen saldoen doikuntza eginda. Transferentziak egiteko errekerimendua Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak egingo du, eta transferentzia horiek guztiak mailegutzat hartuko dira.

4. artikuluan, baimena ezartzen da kreditu berezi bat hartzeko gizartea eta ekonomia suspertzeko. Kredituaren zenbatekoa toki-entitateek konprometitutako baliabideen ehuneko 35 izango da gutxienez, eta guztira ezin da izan 5.000 milioi eurotik gorakoa. Gainera, kreditu hori toki-entitateen artean banatzeko irizpidea ezartzen da, eta zehazten da zertarako erabil daitekeen (artikuluan bertan xehatzen dira helburuak).

5. artikuluan, kreditu berezi bat gaitzen da Estatuaren aurrekontu orokorretan, toki-entitateen titulatasuneko garraio-zerbitzuen aparteko defizita konpentsatzeko. Hasierako zenbatekoa 275 milioi euro izango da.

6. artikuluan, toki-entitateei aukera ematen zaie 2019ko superabita (edo 2019ko abenduaren 31ko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, gehiago bada) 2020ko gastua finantzatzeko erabiltzeko, baldin eta ekitaldi honen amaieran aurrekontu-oreka gordetzen badute.

7. artikuluan, neurri batzuk ezartzen dira probintzia-diputazioek eta unitate baliokideek lankidetzan jarduteko likidezia-arazoak dauzkaten edo finantza-arriskuan dauden udalei laguntzen.

Eta, multzo honetako neurriei amaiera emateko, 8. artikuluan, Ogasun Ministerioari agintzen zaio argitzeko Toki Entitateak Finantzatzeko Funtzarekin formalizatutako maileguen finantza-baldintzak berrikusterik dagoenez. Baldintza horiek Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak erabakita aldatuko lirateke.

9. artikuluan, krisi ekonomikoarekin eta osasun-krisiarekin zuzenean lotuta dauden aparteko eta presazko gastuak estali ahal izateko kreditu-aldaketak nola izapidetu arautzen da.

II. tituluan, zorpetzearen arloko eta Toki Entitateak Finantzatzeko Funtzaren aplikazioaren arloko aparteko eta presazko neurriak ezartzen dira. Tituluko hiru artikuluetan, toki-entitateei finantza-laguntza emateko neurri batzuk arautzen dira.

10. artikulua Toki Entitateak Finantzatzeko Funtseko Antolamendu Funtzaren eremu objektiboa aldatzen du, hartzekodun publikoekin hartutako zor hauek estali ahal izateko, zioen azalpenean azaldu den bezala: Estatu zergen partaidetzaren atxikipenen bidez konpentsatzen ari direnak edo hartzekodunekin sinatutako zorra zatikatzeko eta geroratzeko akordioen bitartez kitatzen ari direnak.

11. artikuluan arautzen da zer egin behar duten toki-entitateek Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtzarekin formalizatutako maileguak kitatzeko eta haien ordez kreditu-entitateen maileguak hartzeko (funts hori likidatzen ari da), eta nola aplikatuko diren orain arteko doikuntza-planak aurreko neurriari heltzen dioten toki-entitateetan.

Errege lege-dekretu honen 12. artikuluan, epe laburrerako zorra epe luzerako zor gisa kontsolidatzeko aukera arautzen da. Hain zuzen ere, zuzenketa-mekanismoak ezartzen dira, bai eta horien eraginpean dauden planen elkarrekiko erlazioa ere (onbideratze-planak, zorra murrizteko planak eta doikuntza-planak).

Azkenik, III. tituluko lau artikuluetan, toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetza arautzen da. Lehen bi artikuluetan (13. eta 14. artikulua), partaidetzaren 2018ko behin betiko likidazioa arautzen da.

15. artikuluan, muga-eguna ezartzen zaie toki-entitateei 2018ko ahalegin fiskalaren ziurtagiriak bidaltzeko; ziurtagiri horiek kontuan hartuko dira toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetzaren 2020ko behin betiko likidazioa kalkulatzeko.

Azkenik, 16. artikuluan, behar diren kreditu gehigarriak (aurrez aipatu direnak) bideratzeko modua arautzen da, eta toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetzaren konturako ekarpenei aurre egiteko beharko diren zenbatekoak zehazten dira.

Lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiak eta Kanaria uharteetako kabildoek 2020ko ekitaldian aplikatu ahal izango dute 2019ko ekitaldiko superabita, bakoitzak bere araubide bereziari jarraituz, Estatuak arautzen dituen zergen diru-sarreretan araubide haien ondorioz gertatu den murrizketa konpentsatzeko.

Bigarren xedapen gehigarriak ezartzen du ezen, aparteko neurri gisa, 2020ko aurrekontu-ekitaldian ez dela aplikatu beharko gastu-araua.

Hirugarren xedapen gehigarrian, «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalari aplikatuko zaion zerga-araubidea ezartzen da.

Laugarren xedapen gehigarrian, ezartzen da 2020ko urriaren 31ra arte balio erantsiaren gaineko zergaren tasa ehuneko zero izango dela COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen Europar Batasunaren barruko zenbait entrega, inportazio eta eskurapenetan.

Bosgarren xedapen gehigarrian, hobari batzuk ezartzen dira notariotza-zergen eta Jabetzaren Erregistroko zergen ordainketarako.

Seigarren xedapen gehigarrian, aldi baterako salbuespen batzuk ezartzen dira Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideetarako eta gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideetarako.

Zazpigarren xedapen gehigarriaren bidez, 2020ko abuztuaren 31ra arte luzatzen da atzerrian bizi diren klase pasiboetako pentsiodunek bizitza-ziurtagiria behar den bezala aurkezteko epealdia (izapide hori nahitaezkoa da).

Zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez, 19/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua indarraldia luzatzen da (19/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 26koa, COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituen nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan).

Bederatzigarren xedapen gehigarrian, enpresa estrategikoen kaudimena bultzatzeko funtsa arautzen da (funts hori 25/2020 Errege Lege Dekretuak sortu zuen).

Hamargarren xedapen gehigarrian, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidez 2020ko ekitaldian lortzen diren diru-sarreretatik kreditua sortzea ezartzen eta arautzen da.

Hamaikagarren xedapen gehigarrian, arauak jartzen dira Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko dituzten lankidetzak-hitzarmenetarako.

Azken xedapenetako lehenengoan, 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko), eta ezartzen da administrazioarekiko auzien bidetik egin behar dela, eta ez ekonomiko-administratibotik, errege lege-dekretu horretan arautzen den presako prozeduraren bidez izapidetzen diren kreditua aldatzeko espedienteetan erreklamazioa.

Azken xedapenetako bigarrenean, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen testu bategina aldatzen da (lege hori irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

Azken xedapenetako hirugarrenak 13/2011 Legearen lehenengo xedapen iragankorra aldatzen du (13/2011 Legea, maiatzaren 27koa, Jokoa arautzekoa), eta Jokoa Batzorde Nazionalak eduki behar zituen eskumenak zer organok izango dituen ezartzen du.

Azken xedapenetako laugarrenean, 59/2003 Legea aldatzen da (59/2003 Legea, abenduaren 19koa, Sinadura Elektronikoki buruzkoa), 13. artikulua hain zuzen, eta

zerbitzu elektronikoetan nortasuna egiaztatzeko baldintzak zer organok arautuko dituen zehazten da.

Azken xedapenetako bosgarrenean, 34/1998 Legea aldatzen da (34/1998 Legea, urriaren 7koa, Hidrokarburoen Sektorearena), eta, azken xedapenetako seigarrenean, 39/2015 Legea (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Azken xedapenetako zazpigarrenak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko Legea aldatzen du; izan ere, ordenamendu juridikoan Jokoaren Batzorde Nazionalari egiten zaizkion aipamen guztiak Kontsumo Ministerioko Jokoaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaz egintzat jo behar dira, haren ordezkoa baita eta haren eskumenak hartu baititu.

Azken xedapenetako zortzigarrenak uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen du; hain zuzen ere, RENOVE programari dagokionez (ibilgailu berriak jasangarritasun-irizpideak eta irizpide sozialak aintzat hartuz erosteko laguntzen programa). Aldaketa horren bidez, ordaintzeko modua argitzen da, aurrekontuko partida aldatzen da eta programa kudeatzen duen entitate laguntzaileari ahalmena ematen zaio funtsak onuradunen artean banatzeko.

Azken xedapenetako bederatzigarrenean, 47/2003 Legearen 54. artikulua aldatzen da (47/2003 Lege Orokorra, azaroaren 26koa, aurrekontuei buruzkoa), eta, azken xedapenetako hamargarrenean, 6/2020 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua (6/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaz presako neurri batzuk hartzen baitira ekonomiaren arloan eta osasun publikoa babesteko).

Azken xedapenetako hamaikagarrenean, baimena ematen zaie Gobernuari eta Ogasuneko ministroari erregelamendu-garapenerako beharrezkotzat jotzen diren arau guztiak emateko, eta, azken xedapenetako hamabigarrenean, ezartzen da Gobernuak errege lege-dekretu hau egiteko dauzkan eskumenen tituluak Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 14. arauak direla, horien bidez Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitzaio Ogasun Publikoaren eta Estatuaren zorraren gainean eta jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarrien gainean eta plangintza horren koordinazio orokorraren gainean.

Azken xedapenetako hamahirugarrenean, ezartzen da erabat txertatzen dela Espainiako ordenamendu juridikoan gas naturalaren barne-merkatuari buruz Europar Batasunak duen arautegia.

Azken xedapenetako hamalagarrenean, arau hau indarrean noiz jarriko den ezartzen da: argitaratzen den egunean.

VIII

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «premia apartekoa eta presazkoa egonez gero», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Lehen alderdiari dagokionez, lege-mailako araugintzako tresna hau erabiltzeko, ezinbestekoa da «aurreikusteko zailak diren arrazoiengatik araudia berehala eman behar izatea, esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presazko prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan» (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 epaia, otsailaren 4koa).

Konstituzio Auzitegiak esan duenez, aparteko eta presako premia dagoela «hainbat elementutan oinarrituta» ondorioztatu ahal da; «arauaren zioen azalpenean aipatzen direnetan», besteak beste (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 epaia, otsailaren 4koa). Beste alde batetik, errege lege-dekretua erabiltzeko aukera ematen duen aparteko eta presako premiaren eta dekretuan ezartzen diren neurrien artean «lotura zuzena edo koherentea» egon behar da. Beraz, aparteko eta presako premia dela eta, Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, bi gauza gertatu behar dira (Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa): batetik, «Gobernuak tresna hori onartzeko aztertu

dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», hau da, presako egoera azaltzea; bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean»

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eskatu duen bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria): Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bati aurre egitea, zeinak eskatzen baitu, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, arau bat egitea berehala, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan. Eta are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrizana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkie (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarriz arreta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiak erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek modu sakon eta arrazoituan justifikatzen dute arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Beste alde batetik, urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzen da, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzeko 2019ko apirilaren 17ko 2019/692 Zuzentaraua. Horrek bi helburu dauzka: batetik, horren transposizioa egiteko konpromisoa betetzea; bestetik, salbuespen-eskaeren berri emateko Europako Batzordeak ezarritako epealdira egokitzea, 2020ko maiatzaren 24rako eginda egon behar baitzen. Salbuespen-eskaeren prozedura errege lege-dekretu honetan ezartzen da.

Kasu honetan, justifikatuta dago errege lege-dekretuaren figura juridikoa erabiltzeko eskatzen den aparteko eta presako beharrizana, (EB) 2019/692 Zuzentarauaren transposizioa ezarritako epealdian ez egiteak ekar litzakeen ondorioak saihestu behar baitira (epealdia 2020ko otsailaren 24an amaitu zen).

Esan behar da, gainera, errege lege-dekretu honek ez duela eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan eta Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ezta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunderi buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Ilido horretan, eta Espainiako Konstituzioaren I. tituluaren araututako herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei eragiteko debekuari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren doktrina oso sendo batek, uztailaren 31ko 139/2016 epaiak (6. oinarri juridikoa) laburbiltzen duenak, honako hau adierazten du: «1.a) (...) baina auzitegi honek baztertu egin du muga horren interpretazio zabalago bat, lege-dekretuaren figura hustea ekarriko lukeena «eta hura baliorik gabe uzten duena Konstituzioaren I. tituluaren jasotako gaien buruzko edozein alderdi eragin handiagorekin edo txikiagorekin arautzeko»; 2.a) Klausula murriztailea lege-dekretuaren figura ezerezera ez murrizteko moduan ulertu behar da; beraz, Konstituzioak debekatzen duena da eskubide, betebeharrak eta askatasun horien araubide orokor bat arautzea edo eskubide horietako batzuen edukiaren edo funtsezko elementuen aurka egitea (Konstituzio Auzitegiaren 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, geroagoko beste batzuek berretsia, 8. oinarri juridikoa); 3.a) Auzitegiak ez du soilik zehaztu behar lege-erreserbaren printzipioa nola adierazten den gai jakin batean, baizik eta aztertu behar du lege-dekretuak Espainiako Konstituzioaren I. tituluaren arautzen den eskubide, betebeharrak

edo askatasunen bat «ukitu» duen, eta, horretarako, kontuan hartu beharko du kasu bakoitzean ukitutako eskubide, betebeharrak edo askatasunaren konstituzio-konfigurazioa, bai eta konstituzio-testuan duen kokapen sistematikoa eta kasuan kasuko arauketa zehatzaren izaera eta irismena ere (...).

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1 artikuluko 13. eta 14. arauetan xedatzen duenaren babesean ematen da. Arau horietan, Konstituzioak eskumen eskusiboak esleitzen dizkio Espainiako Estatuari, hurrenez hurren, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioaren gainean eta Ogasun Publikoaren eta Estatuaren zorraren gainean. Gainera, errege lege-dekretu honek bete egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren erregulazio onaren printzipioak. Premia-printzipioa sobera justifikatuta dago arestian eman diren azalpenetan.

Seigarren xedapen gehigarria eta azken xedapenetako bosgarrena Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 13. eta 25. arauen babesean ematen dira. Arau horietan, Konstituzioak Estatuari eskumen eskusiboa ematen dio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioaren gainean eta energia- eta energia-araubidearen oinarri gainean, hurrenez hurren.

Azken xedapenetako bosgarrenean, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen diren Europar Batasunaren zuzenbideko arauak zehazten dira; zehazki, 2019/692 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2019ko apirilaren 17koa.

Segurtasun juridikoaren, proportzionaltasunaren eta efikaziaren printzipioei bagazozkie, nabarmendu behar da aldaketak alderdi hori modu puntual, zehatz eta argian landu besterik ez duela egiten, exijitu beharreko lege-maila eta aipatutako presako beharrezana aintzat hartuta aukerarik onena erabiliz, hots, errege lege-dekretu bat onartuz. Aurrez azaldu denaren arabera, arau hau justifikatuta dago: interes orokorraren aldekoa da, xede argiak dauzka eta tresnarik egokiena da xede horiek lortuko direla bermatzeko. Gainera, xede duen beharrezanari heltzeko ezinbestekoa den erregulazioa ezartzen du, eta koherentea da gainerako ordenamendu juridikoarekin, lurraldeak finantzatzeko sistemen erregulazioarekin batez ere.

Gardentasun-printzipioaz denaz bezainbatean, kasu honetan errege lege-dekretua onartzen denez, ez da beharrezkoa aurretik kontsulta publikoa egitea, eta entzunaldi-izapidea eta informazio publikoaren izapidea ere ez dira behar. Nolanahi ere, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da, eta gero Gorte Nagusietara bidaliko da, eztabaida publikoan berresteko. Amaitzeko, efizientzia-printzipioari dagokionez, arau honek ez du administrazio-kargarik ezartzen.

Hartzen diren neurri guztiek betetzen dute, haien izaera eta xedea ikusirik, errege lege-dekretu bat onartu ahal izateko baldintza gisa Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua eskatzen duena, hau da, aparteko eta presazko beharrezana izatea.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioak 86. artikuluan arautzen duen baimenaz baliatuz, Ogasuneko ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluak 2020ko abuztuaren 4ko bileran eztabaidatu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. TITULUA

Toki-entitateen superabita finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioak finantzatzeko erabiltzea; toki-entitateei laguntzeko neurriak, eta aurrekontuak kudeatzeko aparteko eta presazko beste arau batzuk.

1. artikulua. *2019ko superabita finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetarako erabiltzea 2020an.*

Toki-entitateen 2019ko aurrekontu-superabitaren xedeari dagokionez, 2020ra luzatzen da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarrian jasotako arauen aplikazioa. Horretarako,

kontuan hartu beharko da Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartua; zehazki, haren hamaseigarren xedapen gehigarria. 2/2012 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan aipatzen den saldotik honako zenbateko hau kendu beharko da: 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua, 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 20.1 artikulua eta 23/2020 Errege lege Dekretuaren 6. artikulua aplikatuz erabiltzen den zenbatekoa (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena da; 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, berriz, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko, eta 23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, Ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituena).

Aurreko arauaren ondorioetarako, errege lege-dekretu honen 6. artikulua 3. apartatuan xedatzen dena aplikatuko da.

Ezinezkoa bada artikulua hau aplikatuz hasitako inbertsio-proiektu jakin bat oso-osorik gauzatzea 2020. urtean, beste aukera bat ere badago: 2020. urtean baimendutako gastutik falta den zatia 2021eko ekitaldian aitortzea eta 2020ko diruzaintza-gerakinaren kargura finantzatzea. Zenbateko hori helburu horretarako lotuta geratuko da, eta toki-korporazioak ezingo du defizitik eduki 2021. urtearen amaieran.

2. artikulua. 2018ko superabitarekin finantzatzen hasitako inbertsio jasangarrien proiektuak gauzatzeko prozedura luzatzea.

Aparteko neurri gisa, 2021eko ekitaldian amaitu ahal izango da 2018ko superabitaren kargura 2019ko ekitaldian hasitako inbertsio jasangarrien gastu-proiektuak gauzatzeko, baldin eta gastu osoa 2019ko ekitaldian baimendu bada eta 2020ko ekitaldian gastu hori konprometituta gelditu bada.

Gastua 2020ko aurrekontuaren likidazioaren ondoriozko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren kargura finantzatuko da. Horrenbestez, saldo hori, hau da, gauzatu gabeko inbertsio jasangarriaren zenbatekoa, gastu horri lotuta geratuko da aurrekontuan, eta toki-korporazioak ezingo du defizitik eduki 2021. urteko aurrekontuaren likidazioan, kontabilitate nazionalaren irizpideen arabera.

3. artikulua. Toki-entitateek Altxor Publikoaren kontuetan jartzea 2019ko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinen saldoak.

1. Udalek, probintzia-diputazioek eta uharte-kontseiluek konpromisoa hartu ahal izango dute Estatuko Administrazio Orokorraren esku jartzeko beren diruzaintzako soberakinak –hain zuzen ere, gastu orokorretarako gerakinetakoak–, honako kopuru hauek kenduta: aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketen hartzekodunen kontuetako 2019ko abenduaren 31ko saldoak eta bidegabe jasotako diru-sarreraren itzulketen 2019ko abenduaren 31ko saldoak; errege lege-dekretu honen 1. artikuluan xedatzen denaren arabera aplikatzen duten diru kopurua, eta errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik onartutako kreditu-aldaketak finantzatzeko zenbatekoak. Aurreko magnitude horiek administrazio orokorrari eta gehieneko aurrekontua duten mendeko erakundeei dagozkie.

Toki-entitateek konprometitutako baliabide guztiak Estatuko Administrazio Orokorrari transferitzeko konpromiso irmo, lotesle eta uko egin ezinekoa bidali behar diote Ogasun Ministerioari 2020ko irailaren 15erako. Konpromisoak 2021eko abenduaren 31ra arte egon beharko dira indarrean. Aldi horretan, Altxorren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak errekerimendua egingo die toki-entitateei, konprometitutako baliabideak eman diezazkieten.

Transferentzien zenbatekoa gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin osoa izango da, arestian azaldu den bezala. Transferentziak maileguak izango dira, toki-entitateek Estatuko Administrazio Orokorrari emanak, eta egintza bakar batean gauzatu dira, Estatuko Administrazio Orokorrak funtsak Altxorren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak zehazten duen kontuan jasotzen dituenean. Maileguak ez dira formalizatu

beharko. Toki-entitate batek konpromiso irmoa bidaltzen badu, toki-entitate horrek onartu egiten ditu Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak hurrengo apartatuan aipatzen den ebazpenaren bidez finkatutako maileguen baldintzak. Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bat argitaratuko du toki-entitateei maileguak ordaintzeko eskatzeko, eta orduan joko da kontratua burututzat. Maileguak Estatuaren zorrak izango dira, azaroaren 26ko Aurrekontuen 47/2006 Lege Orokorrak 92. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik. Toki-entitateek ezin laga izango dizkiete maileguak hirugarrenei, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak aurretik baimena eman ezean.

Toki-korporazio bakoitzeko buruak dekretu edo ebazpen baten bidez erabakiko du toki-entitateak konpromisoa hartzea finantza-baliabideak Estatuko Administrazio Orokorraren esku jartzeko, toki-entitateko kontu-hartzaitzako organoetako eta diruzaintza-organoeetako titularrek txosten bat egin ondoren eta arestian aipatutako arauari jarraituz kalkulatu den eta konprometitu nahi den zenbatekoa txostenean zehaztu ondoren.

Toki-korporazioko buruak dekretu edo ebazpen horren berri eman beharko du hurrengo osoko bilkuran.

2. Estatu Administrazio Orokorrak hamabost urtean amortizatuko du maileguaren printzipala, gehienez, 2022. urtetik aurrera.

Maileguen finantza-baldintzak finkatu aurretik kontsulta egingo zaio Estatuan ordezkartza handiena daukan toki-entitateen elkarteari, 2020ko abuztuaren 7a baino lehen. Baldintza horiek Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez onartuko dira. Eta mailegu horietarako ezartzen den urteko interes-tasa ezin izango da izan Estatuaren zorraren finantzaketaren kostua baino gehiago, horren barruan sartzen direla Estatu Administrazio Orokorrak egiten dituen eragiketek eragiten dituzten finantza-kostuak eta bestelako kostuak. Nolanahi ere, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak 2020ko abuztuaren 20rako argitaratu beharko ditu maileguen baldintzak, beranduenik ere, ebazpen baten bidez. Orduetik aurrera, toki-entitateek bat egitea erabaki ahal izango dute, eta, horretarako, finantza-baliabideak Estatu Administrazio Orokorraren alde erabiltzeko konpromisoa bidali beharko dute.

3. Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak finantza-agente bati emango dio maileguak kudeatzeko ardura; gainera, baimena eman ahal izango dio beraren izenean jarduteko maileguen eragiketak kudeatzeko irekitzen diren kontuetan.

Bankuak banaka kudeatuko ditu maileguak, baina Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak taldekatu ahal izango ditu eta finantza-eragiketa bakar baten edo zenbaiten gisa tratatu ahal izango ditu Estatuaren zorraren erregistro-sistematan eta kontabilitate publikoan. Mailegu horien amortizazioak, interes-gastuak eta gainerako komisioak Estatu aurrekontu orokorren 6. atalari («Zor publikoa») aplikatuko zaizkio.

4. Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 53.2 artikuluan ezartzen duena alde batera utzi gabe, aurreko apartatuetan aipatzen diren saldoen transferentziek gastuetarako kredituak sortuko dituzte Estatu aurrekontu orokorren 32. atalean.

Artikulu honen babesean kredituak sortzeko, azaroaren 26ko 47/2003 Legean eta hori garatzen duen arautegian ezartzen denari jarraituko zaio.

5. Ogasun Ministerioi eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioi organo eskudunei baimena ematen zaie errege lege-dekretu honen I. titulu biltzen diren manuak garatzeko behar diren ebazpenak eta jarraibideak onartzeko.

4. artikulua. *Kreditu bereziak baimentzea toki-entitateen suspertze ekonomiko eta sozialerako.*

1. Estatu Administrazio Orokorrak, gutxienez, toki-entitateek konprometitutako baliabideen ehuneko 35 jarriko du haientzat suspertze ekonomiko eta sozialerako, baina guztira ezingo dira izan 5.000 milioi euro baino gehiago. Konpromisoa bidaltzeko ezarritako epealdia amaitzen denetik hilabete pasatu baino lehen, transferentzia arruntak egingo zaizkie toki-entitateei, bakoitzari berak konprometitutako zenbatekoaren proportzioan. Transferitzen zaion diru kopurua honako hauekin lotutako jarduketak finantzatzeko erabili beharko du toki-entitate bakoitzak, bere interesak kudeatzeko daukan autonomiaren

esparruaren barruan: Espainiako Hiri Agendako planak edo estrategia lokalak prestatzea eta abian jartzea eta mugikortasun jasangarriko, hurbileko zaintzako eta kulturako plan edo estrategiak (artikulua honen 3., 4. eta 5. apartatuetan zehazten direnak). Transferentziak honela egingo ditu Estatuko Administrazio Orokorrak: 2020. urtean, toki-entitateek konprometitutako ekarpenen ehuneko 40, 2.000 milioi euro gehienez, haiek 2020an egiten dituzten gastuak finantzatzeko; 2021. urtean, gainerako ehuneko 60a, 3.000 milioi euro gehienez, 2021ean egiten dituzten gastuak finantzatzeko.

Apartatu honetan adierazitako ondorioetarako, 5.000 milioi euroko kreditu berezi bat ezartzen da indarreko aurrekontuan: atala: 32 «Lurralde-erakundeekiko beste finantza-harreman batzuk»; zerbitzua: 02 «Maila Autonomikoa eta Tokikoa Finantzatzeko Idazkaritza Nagusia. Toki-entitateak»; programa: 942N «Toki-entitateentzako beste ekarpen batzuk»; 4. kapitulua, 46. artikulua eta 467. kontzeptua: «Toki-entitateen suspertze ekonomikoa eta soziala». Apartatu honetan ematen den kreditu berezia Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorraren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua araberaz finantzatzeko da. Gainera, kreditu txertagarria izango da, eta Aurrekontuaren azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 59. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorri finantzatzeko da.

Toki-entitate batek ez baditu betetzen hartutako konpromisoak (aurreko artikulua 1. apartatuan aipatzen direnak), konpentsazioa egingo da artikulua honetan arautzen denaren arabera jasotako transferentziak bidegabe jasotzeagatik: Estatuko zergetatik dagokion partearen konturako entregak eta behin betiko likidazioak atxikiko zaizkio, harik eta bidegabe jasotako zenbateko osoa konpentsatu arte. Transferentziaren zenbateko osoa atxiki ahal izango da. Zor horrek, kitzatzeko orduan, lehentasuna edukiko du hartzekodun publikoekin hartutako zor guztien aldean.

2. Transferentzia horiek aplikatuz toki-entitateek egiten dituzten gastuak finantzaketa lotuko funtsekin finantzatzeko gastutzat hartuko dira Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak 12.2 artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako.

3. Hiri-agendaren eta mugikortasun jasangarriaren eta trantsizio energetikoaren arloetan, gastu hauek sartzen dira, besteak beste: tokiko hiri-agendak, hiriko mugikortasun jasangarriko planak, bideak oinezkoentzat moldatzeko edo oinezkoak eta ibilgailuak aldi berean erabiltzeko proiektuak prestatzeko eta abian jartzeko egiten diren inbertsio-gastuak; garraio publikoa, oinez eta bizikletan egiten diren joan-etorriak eta mugikortasun jasangarri elektriko eta partekatua sustatzeko gastuak eta mugikortasuna eraldatzeko gastuak; ur-hornidura, saneamendua eta lurpeko kableak berritzeko gastuak; hondakinak ez sortzeko, gaika biltzeko eta berriz erabiltzeko, birziklatzeko eta beste era batzuetara balioztatzeko prestatzeko gastuak; ingurumen-babeseko zonetako ekintzen gastuak; herritar guztien erabilerarako altzari eta ekipamendu publikoak osasun-beharrizanetara moldatzeko gastuak; espazio publikoak birgaitzeko gastuak; eraikin eta instalazio publikoetan efizientzia energetikoa hobetzeko gastuak; eraikin eta instalazio publikoetan iturri berriztagarriko energia sortzeko instalazioak ezartzeko gastuak.

4. Hurbileko zaintzaren arloan, honako hauek sartzen dira, besteak beste: gizarte-zerbitzuak sendotzeko, haien konektibitatea areagotzeko eta arreta soziosanitarioa hobetzeko egiten diren jarduketaren gastuak; adineko pertsonak, mendekotasuna dutenak eta desgaitasuna dutenak artatzeko egiten diren jarduketaren gastuak; etxeko laguntza-sistemak berrantolatzeko, genero-indarkeriaren biktimek azkar detektatzeko eta biktimei laguntza emateko jarduketaren gastuak; gizarte-bazterketa eta eskola-absentismoa konpontzeko jarduketaren gastuak; 0-3 urte bitarteko eskolen gastuak, kalteberatasun-egoerarako gastuak, eta lana eta familia bateratzen laguntzea xede duten haurrak zaintzeko programen gastuak.

5. Kulturaren arloan, honako hauek sartzen dira, besteak beste: kultura sustatzen laguntzeko politikek, kulturako azpiegiturak sortzeko politikek, ondare historikoa berreskuratzeko politikek eta kultura-arloko erakunde guztien eta kirol-arloko azpiegitura guztien eguneratze digitalerako politikek eragiten dituzten gastuak.

6. Artikulu honetan aipatzen diren jarduketak egiteko, ez da beharrezkoa izango, inola ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 7.4 artikuluan ezarritako aurretiazko txostenak egitea.

5. artikulua. *Kreditu berezi bat baimentzea toki-entitateen titulartasuneko garraio-zerbitzu publikoak sustatzeko.*

1. Baimena ematen da toki-entitateek kreditu berezi bat hartzeko beren titulartasuneko garraio-zerbitzu publikoak sustatzeko. Toki-entitateek finantzaketa handiagoa edukitzea da kontua, gauza izan daitezten COVID-19aren krisiaren ondorioz alarma-egoera indarrean egon den aldian izan duten ezohiko defizita konpentsatzeko, 2020. urtea amaitu arte. Kredituaren zenbatekoa 2018. urtean zerbitzu horietako tarifen bidez lortutako diru-sarreraren arabera banatuko da, artikulu honetan ezartzen diren arauekin eta toki-entitate bakoitzeko kontu-hartzailetzako organoko titularrak horretaz egiten duen txostenarekin bat etorritz.

Transferentzien hartzaileen eremu subjektiboaren barruan daude garraio-zerbitzu publikoren bat egiten duten udalak, probintzia-diputazioak (foru-aldundiak barne) eta uharteetako kontseiluak eta kabildoak.

2. Kreditu berezi honen hasierako zuzkidura 275 milioi euro izango da, Estatuko 2020ko Aurrekontu Orokorren kargura.

Apartatu honetan adierazitako ondorioetarako, kreditu berezi bat ezartzen da indarreko aurrekontuan: atala: 17 «Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioa»; zerbitzua: 39 «Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusia»; programa: 441 M «Dirulaguntzak eta laguntza lurreko garraiorako»; 4. kapitulua, 46. artikulua eta 461. kontzeptua: «*Toki-entitateen titulartasuneko garraio-zerbitzu publikoak sustatzea*». Apartatu honetan ematen den kreditu berezia Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua arabera finantzatuko da. Honako kasu honetan kreditua 400 milioi euro arte handitu ahal izango da: organo eskudunek hurrengo apartatuan ezartzen denarekin bat etorritz transferentziak egiaztatzeke egiten dituzten ziurtagirien arabera ondorioztatzen bada hasieran esleitutako kopurua ez dela nahiko transferentzia guztiak egiteko.

Kreditua Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak kudeatuko du, Garraioetako eta Mugikortasuneko Idazkaritza Nagusiko Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Hori dela eta, artikulu honetan azaltzen diren irizpideak aplikatuz, Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak dauzka kreditu berezi horren kargura egingo diren transferentziak esleitzeko eta betearazteko eskumena eta transferentzia horien gastuak onartzeko eta haiei dagozkien konpromisoak eta likidazioak baimentzeko eskumena.

3. Garraio-zerbitzu publikoren bat ematen duen toki-entitate bakoitzari dagozkion finantzaketa esleitzeko, irizpide objektiboak aplikatuko dira, garraio-eskariaren jaitsierak diru-sarreretan ekarritako beherakadarekin lotutakoak, horixe baita toki-entitateen ezohiko defizitaren arrazoi nagusia. Irizpide objektibo horiek erreferentziako urtean tarifak edo prezio publikoak aplikatuz lortutako diru-sarreraren proportziokoak izango dira; hona prozedura:

a) Garraio-zerbitzu publikoren bat ematen duen udal edo diputazio bakoitzari esleituko zaion finantzaketaren zenbatekoa 2018. urtean zerbitzuaren tarifak aplikatuz lortutako diru-sarreraren arabera zehaztuko da: diru-sarreraren ehuneko 33 izango da. Hori dela eta, udalen edo diputazioen kontu-hartzailetzako organoen titularrak bi kopuru horiek zehazten dituen ziurtagiri bat egingo dute. Apartatu honetan ezartzen dena ez zaie aplikatuko ematen dituzten garraio-zerbitzu publikoak Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoan edo Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzan sartuta dauden udalei.

b) Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoan edo Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzan sartuta dauden garraio-zerbitzu publikoak ematen dituzten udalen finantzaketaren zenbatekoa 2018. urtean tarifak aplikatuz lortutako diru-sarreraren arabera zehaztuko da. Hori dela eta, partzuergo horietako lehendakari bakoitzak ziurtagiri

bat egingo du, 2018. urtean tarifak aplikatuz lortutako diru-sarrerak zenbat izan diren adierazten duena. Diru-sarrera horien zenbatekoa oinarritzat hartuta, toki-entitateak jaso beharreko kopurua hark partzuergoan daukan partaidetzaren arabera kalkulatu da, edo 2018ko finantzaketan jaso zuen dirulaguntzaren edo transferentziaren arabera. Finantzaketaren zenbatekoa aurreko eragiketaren emaitzako kopuruaren % 33 izango da, eta partzuergoaren ziurtagirian adierazi beharko da zenbateko hori ere.

c) Uharteetako kontseiluei eta kabildoei beren titulartasuneko garraio-zerbitzu publikoak finantzatzeko emango zaien diru kopurua 2018. urtean zerbitzu horien tarifak aplikatuz lortutako diru-sarreraren arabera izango da. Kopuru horretatik kendu egin beharko da 2018. urtean zerbitzu horiek finantzatzeko beste administrazio publiko batzuek emandako dirulaguntzei eta transferentziei dagokien proportzioa. Zerbitzuak finantzatzeko jasoko den zenbatekoa aurreko eragiketaren emaitzako kopuruaren ehuneko 33 izango da. Hori dela eta, toki-entitatearen kontu-hartzaitzako organoen titularrak honako datu hauek zehaztuko ditu ziurtagiri batean: 2018. urtean tarifak aplikatuz lortutako diru-sarreraren guztirako zenbatekoa, 2018. urtean beste administrazio batzuek finantzatzeko ehunekoia eta toki-entitateak jasoko duen kopurua (ehuneko 33).

Apartatu honetan aipatzen diren ziurtagiriak aski izango dira funtsak igortzeko, hau da, toki-entitateari edo Madrilgo Garraioen Eskualde Partzuergoari edo Bartzelonako Garraio Metropolitanoaren Agintaritzari transferentzia egiteko; ez da beharko ziurtagiriaz beste justifikaziorik. Nolanahi ere, Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzaitza Nagusiak egiaztatu ahal izango du toki-entitateen ziurtagirietako zenbatekoak bat datozen apartatu honetan ezartzen denarekin. Toki-korporazioek eta haien mendeko entitateek kontrol-jarduketara horiek egiten lagundu beharko dute eta horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

Ziurtagiriak egiteko, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren ereduak erabili behar dira. Beraren egoitza elektronikoan eskuratu daitezke.

4. Aurreko apartatuan aipatzen diren toki-entitateek, garraio-zerbitzu publikoak sustatzeko finantzaketa eskatu nahi badute, eskaera arrazoitua bidali beharko dute Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusira errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik bi hilabete igaro baino lehen. Eta dagokion ziurtagiria erantsi behar zaio eskaerari.

Prozedura osoa Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da; hona esteka: https://sede.fomento.gob.es/FONDO_COVID_ENTIDADES_LOCALES.

5. Baimentzen den kreditu bereziaren kargura toki-entitateek jasotzen dituzten zenbatekoak hiriko garraio-zerbitzu publikoak finantzatzeko baino ezin erabili izango dira. Garraio publikoaren aparteko defizita finantzatzeko, artikulua honek xedatzen duena aplikatuko da. Dirulaguntzen Lege Orokorra ez da aplikatuko.

6. artikulua. *2019ko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren aplikazioa.*

Kontabilitate nazionaleko irizpideen arabera 2019. urtean aurrekontu-superabita eduki duten toki-entitateek, aparteko neurri gisa, 2020ko gastuak finantzatzeko erabili ahal izango dute erabili gabeko superabita edo, gehiago bada, 2019ko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, 2019ko abenduaren 31koa, baldin eta 2020ko ekitaldiaren amaieran aurrekontu-oreka gordetzen badute.

7. artikulua. *Probintzia-diputazioek eta entitate baliokideek likidezia-arazoak dauzkaten edo finantza-arriskuan dauden udalei laguntzeko neurriak.*

1. Probintzia-diputazioek eta entitate baliokideek, bakoitzak bere eskumeneko esparruan (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen; 36. artikulua), finantza-laguntza eman behar diete beren lurralde-esparruko udalerrietako udalei (batez ere, 20.000 biztanletik beherako udalerrietakoei) honako kasu hauetan: finantza-arriskuan egonez gero abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuak 39.1.a) artikuluan ezartzen duenaren arabera, edo 2019ko ekitaldiaren itxieran aurrezki garbia edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, aplikatzeko dauden

eragiketen hartzekodunen kontuetako saldoak eta bidegabe jasotako diru-sarrereren itzulketen saldoak kenduta, negatiboa izanez gero.

2. Aparteko neurri gisa, 2020. urtean ez da aplikatu beharko Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 49.4 artikulua (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen) eta probintzia-diputazioek eta entitate balioekideek maileguak edo kreditu-eragiketak egin ahal izango dituzte aurreko apartatuan aipatzen diren udalekin 2019ko ekitaldiaren itxieran diruzaintzan eduki duten gerakin negatiboa finantzatzeko. Eragiketa horiek finantza-zuhertasunaren printzipioa aintzat hartuz egin behar dira, aipatutako testu bateginaren 48 bis artikuluekin bat etorri; gainera, behar den kasuetan, errege lege-dekretu honen 11. artikuluen 2. apartatuan ezartzen diren arauak aplikatu behar dira.

3. Aparteko neurri gisa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan sartutako gastutzat jotzen dira probintzia-diputazioek eta uharteetako kontseiluek eta kabildoek artikulua honen 1. apartatuan aipatzen diren udalen alde egiten dituzten transferentzien gastuak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen duena aplikatzeko, eta probintzia-diputazioen eta uharteetako kontseiluen eta kabildoen 2019ko superabitaren xedeari dagokionez (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Horretarako, gastu horiek xede jakinekoak izan behar dute eta udalak plan ekonomiko-finantzarioa onartuta eduki behar du Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak xedatzen duena betetzeko.

8. artikulua. *Likidezia-arazoak dauzkaten edo finantza-arriskuan dauden udalek Toki Entitateak Finantzatzeko Funtzarekin formalizatutako maileguen finantza-baldintzak berrikustea.*

2020. urtea amaitu baino lehen Ogasun Ministerioak aztertuko du ea komeni den berrikustea finantza-arriskuan dauden udalek, finantza-zor handiak dituzten udalek edo aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketen hartzekodunen kontuetako saldoak eta bidegabe jasotako diru-sarrereren itzulketen saldoak kendu ondoren diruzaintzako gerakin negatiboa eduki duten udalek Toki Entitateak Finantzatzeko Funtzarekin formalizatutako maileguen finantza-baldintzak. Azterketa horren ondoren Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak erabaki ahal izango du finantza-eragiketak eta haien gaineko fiskalitatea aldatzea, krisiaren ondorioak arintzeko eta toki-entitateen finantzak onbideratzeko.

9. artikulua. *Krisi ekonomikoarekin eta osasun-krisiarekin zuzenean lotuta dauden aparteko eta presazko gastuak estaltzeko kreditu-aldaketak egiteko izapideak.*

Aparteko neurri gisa, 2020. urtean, presaz jarduteko beharra behar bezala frogatuz gero, toki-korporazioko lehendakariaren dekretuen edo ebazpenen bidez izapidetu ahal izango dira kreditua edo kreditu-gehirria gaitzeko onartu beharreko aparteko aurrekontu-aldaketak, eta ez zaizkie aplikatuko Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 169. artikuluan aipatzen diren arauak, aurrekontuen erreklamazioei eta publizitateari buruzkoak (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Dekretu edo ebazpen horiek berehala betearaztekoak izango dira, eta hurrengo osoko bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da, eta gero dagokien aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira.

Onartutako dekretua, osoko bilkuran baliozkotzen ez bada, ez da baliogabetuko ez etengo. Nolanahi ere, administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da; horretarako, epealdiak osoko bilkuraren erabakia argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko dira.

II. TITULUA

Aparteko eta presazko neurriak zorpetzeari buruz eta Toki Entitateak Finantzatzeko Funtsaren aplikazioari buruz

10. artikulua. *Toki Entitateak Finantzatzeko Funtseko Antolamendu Funtsaren konpartimentuaren eremu objektiboaren aldaketa.*

1. 2020ko ekitaldirako, Autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzko abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuaren 39.1 artikuluan aipatzen diren udalek amortizatzeko dauzkaten zenbatekoak sartu ahalko dituzte, toki-entitateek enpresekin eta autonomoekin hartutako zorrak kitatzeko kreditu-lerroaren esparruan egin ziren eragiketei dagozkienak, errege lege-dekretu beraren 40.1 artikulua araututako eremu objektiboan, baldin eta zor horiengatik atxikpenak aplikatzen ari badira toki-entitate horiek Estatuko tributuetan duten partaidetzan. Kreditu-lerro hori uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuan araututa dago, hipoteka-zordunak laguntzeko, gastu publikoa kontrolatzeko eta toki-entitateek enpresekin eta autonomoekin dituzten zorrak bertan behera uzteko, enpresa-jarduera sustatzeko eta birgaitzea bultzatzeko eta administrazioa soiltzeko neurrienean; zehazki, II. kapituluaren bigarren atalean.

2. 2020an Toki Entitateak Finantzatzeko Funtseko Antolamendu Funtsaren konpartimentuari atxiki zaizkion edo atxikitzen zaizkion udalek, salbuespenez, eskatu ahalko dute, 2020ko urriaren 31 baino lehen, konpartimentu horren kargurako maileguak egitea, Tributu Administrazioaren Estatu Agentziarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin daukaten zorra kitatzeko, baldin eta zorra zatikatzeko edo geroratzeko eta errege lege-dekretu hau argitaratu aurretik hartzekodun horiekin sinatutako akordioen bitartez kitatzen ari badira edo zor hori konpentsatzen ari badira toki-entitate horiei Estatuko tributuetan duten partaidetzan atxikpenak aplikatuz; hori guztia abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera bete beharko da, eta arau horren 39.1 artikuluan udal eskatzaileei dagozkien egoera zehatzari erreparatuta.

11. artikulua. *Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsarekin toki-entitateek sinatutako mailegu-eragiketak kitatzea.*

1. Estatuko 2013ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenean xedatutakoaren salbuespen gisa, 2020. urtean toki-entitateek zorpetze-eragiketa berriak hitzartu ahal izango dituzte Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsarekin duten zorra erabat edo partzialki kitatzeko (funts hori likidatzen ari da), baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Sinatuko den zorpetze-eragiketa berriaren amortizazio-aldia, gehienez, toki-entitateak funts horrekin hitzartuak dituen kreditu-eragiketak erabat kitatzeko geratzen den amortizazio-aldiaren adinakoa izango da. Kitatu diren eragiketak formalizatzea ahalbidetu zuten eta onartu ziren doikuntza-planak indarrean egongo dira zorpetze-eragiketa berria erabat amortizatzen den arte, artikuluan honen 4. eta 5. paragrafoetan xedatzen dena alde batera utzi gabe.

b) Zorpetze-eragiketa berriarekin finantza-karga gutxitu egingo da; beraz, finantza-aurrezkoa lortu behar da.

c) Zorpetze-eragiketa horretan ezin izango da txertatu Estatuaren tributuetan parte hartzearen bermea, eta eragiketa berri horiek hitzartzen dituzten kreditu-entitateak ezin izango dira subrogatu Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsari dagozkion eskubideetan.

d) Eragiketa hori Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsarekin formalizatutako maileguak garaia baino lehen erabat edo partzialki amortizatzen bideratu behar da oso-

osorik, betiere toki-entitateek funts horrekin sinatutako kontratuetan ezarritako baldintza eta eskakizunak beteta.

2. Zorpetze-eragiketa berri horiek formalizatzeko, baimena eskatu beharko zaio Ogasun Ministerioari.

Horretarako, eskabideekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Toki-korporazioko organo eskudunaren erabakia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutako quorum- eta bozketa-baldintzak betez hartua.

b) Toki-entitateko kontu-hartzailearen txostena, zorpetze-eragiketa berria sinatzearen ondorioz urtean zenbateko finantza-aurrezkoa lortuko den egiaztatzen duena.

3. Toki-entitateak hornitzaileei ordainketak egiteko batez besteko aldia kalkulatu behar du, 635/2014 Errege Dekretuari jarraikiz (635/2014 Errege Dekretua, uztailaren 25ekoa, Administrazio publikoek hornitzaileei ordainketak egiteko batez besteko aldia kalkulatzeko metodoa garatzen duena eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako finantzaketa-araubideen baliabideak atxikitze baldintzak eta prozedurak ere garatzen dituena), eta aldi hori berankortasunari buruzko araudian finkatutakoa baino luzeagoa bada, merkataritza-zorra eta, horrenbestez, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia murrizteko erabili beharko da baimendutako zorpetze-eragiketa berria sinatzeak eragindako finantza-aurrezkoa. Besteak beste, neurri hori txertatu beharko da, hala badagokio, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aipatzen den diruzaintza-planean.

4. Baldin eta toki-entitateak Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 51. eta 53. artikuluetan xedatzen duen zorraren muga bete badu 2019ko ekitaldiaren itxieran, bai eta aurrekontu-egonkortasunaren helburua eta gastu-araua ere, eta hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia –toki-entitateak uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuaren arabera kalkulatu behar duena– ez bada berankortasunari buruzko araudian finkatutakoa baino luzeagoa, toki-entitateak eragiketa berria formalizatu ahal izango du. Toki-entitateak Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsarekin dituen maileguak erabat kitatzen baditu, indarrrik gabe geratuko da mailegu horiek sinatzea ahalbidetu zuen eta onartu zen doikuntza-plana. Mailegu horiek ez badira erabat kitatzen, doikuntza-planek indarrean segituko dute, bai eta horiek nola gauzatzen ari diren aztertze jarraipen-prozedurak ere.

5. Toki-entitateak, baldin eta 2019ko ekitaldiaren itxieran ez badu bete aurreko 4. apartatuan aipatutako muga edo arauetako bat, zorpetze-eragiketa berria formalizatu ahal izango du, baina onartutako doikuntza-plana indarrean egongo da, nahiz eta Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsarekin formalizatutako maileguak erabat kitatu.

6. Aurreko 4. eta 5. apartatuetan xedatzen dena gorabehera, toki-entitateak, baldin eta 2019ko ekitaldiaren itxieran aurrezki garbi negatiboa aurkeztu badu edo aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten ehuneko 75etik gorako zorpetzea aurkeztu badu, Estatuko 2013ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenean zehaztutakoaren arabera, plan bat onartu beharko du, osoko bilkuraren erabaki baten bidez, finantzak onbideratzeko edo zorra murrizteko, bost urte igaro baino lehen aurrezki garbiaren zeinua zuzentzeko asmoz edo zorpetze-bolumena zuzentzeko asmoz hurrenez hurren. Zorpetze-maila hori lehen aipatutako muga horretaraino zuzendu beharko da, ehuneko horren eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 53. artikulua zehaztutako ehunekoaren artekoa bada (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen). Gehiegi zorpetutako gainerako kasuetan, zorra murrizteko planak zor-maila zuzendu beharko du; gehienez ere, aipatutako azken manuan finkatutako ehunekoraino.

Plan horiek Ogasun Ministerioan jakinarazi behar dira, artikulua honen 2. apartatuan aipatzen den baimen-eskabidearekin batera.

Toki-entitateko kontu-hartzaileak urteko txosten bat egin beharko du plan horien betetze-mailari buruz, eta toki-korporazioko osoko bilkuran aurkeztu, hark haren berri izan dezan; horretaz gain, Ogasun Ministeriora ere helarazi beharko du.

Aipatutako planei dagokienez ez-betetzereen bat gertatuz gero, toki-entitateak ezin izango du epe luzeko zorpetze-eragiketarik hitzartu edozein inbertsio-modalitate finantzatzeko. Bestalde, Ogasun Ministerioak ezohiko neurriak proposatu ahal izango ditu eta eraginpeko toki-entitateek ezarri egin beharko dituzte. Toki-entitateek ez badituzte neurriok hartzen, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 25. eta 26. artikuluetan ezarritako neurri hertsagarriak eta nahitaez bete beharrekoak aplikatu ahal izango dira.

7. Aurreko apartatuetan aurreikusitakoari jarraikiz, Ogasun Ministerioan eman beharko da hitzartzen den zorpetze-eragiketa berriaren berri, sinatzen den egunetik kontatzen hasi eta hogeita hamar eguneko epean, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 55. artikuluan eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukotasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen urriaren 1eko HAP/2105/2012 Aginduaren 17. artikuluan xedatutakoari jarraikiz betiere (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

8. Hazkundera, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legeak 3. artikuluan ezartzen duena aplikaturik baimendutako birfinantzaketa-eragiketak egin dituzten toki-entitateek, doikuntza-plana badute indarrean artikulua horren 5. apartatua aplikatzearen ondorioz, eten ahal izango dute planaren indarraldia, honako baldintza hau betez gero: aurreko 4. apartatuan aipatzen diren zerga-arauak beteta edukitzea 2016-2019ko aldiko urte guztietan. Errege legedekretu hau argitaratu ondoko hiruhilekoan egiten den jarraipenean jakinaraziko zaio Ogasun Ministerioari doikuntza-planaren indarraldia eten dela.

9. Artikulu honetan aipatzen den informazioa modu elektronikoa emango da, horretarako berariaz prestatutako ereduetan. Ereduari kontu-hartzailetza nagusiak edo kontabilitatearen arloko eskumenak dauzkan unitate baliokidearen sinadura elektronikoa erantsi behar zaio.

Maila Autonomikoa eta Tokikoa Finantzatzeko Idazkaritza Nagusia gaitzen da apartatu honetan xedatzen dena aplikatzeko eta betearazteko behar diren ebazpen eta neurriak ezartzeko. Besteak beste, eskaerak aurkezteko epealdia finkatu ahal izango du, aurkeztu beharreko informazioa zehaztu ahal izango du eta eskaera bidaltzeko prozedura telematikoa eta baimenak emateko mekanismo elektronikoa ezarri ahal izango ditu.

12. artikulua. *Toki-entitateek epe laburreko zorra epe luzeko zor gisa kontsolidatzea.*

1. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginean xedatutakoaren salbuespen gisa (testu bategina martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), baimena ematen da 2020an epe laburreko zorra epe luzeko bihurtzeko eragiketak egiteko; hain zuzen ere, toki-entitate hauei ematen zaie eragiketa horiek egiteko baimena: 4131 «Hartzekodunak, aurrekontuan aplikatu gabe dauden eragiketengatik» kontuko saldoa –edo, halakorik ez badago, 413 «Hartzekodunak, sortutako eragiketengatik» kontuko saldotik hari dagokion zenbatekoa– ordaindurik edo aplikatzekoa den kontabilitate-eta aurrekontu-arauegian ezarritakoaren arabera baliokideak diren kontuetako saldoak ordaindurik 2018an edo 2019an gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin negatiboa izan duten toki-entitateei edo ekitaldi horietako batean aurrezki garbi negatiboa izan dutenei.

2. Birfinantzaketa-eragiketa horiek formalizatzeko, toki-korporazioko organo eskudunak erabaki bat onartu beharko du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutako quorum- eta bozketa-baldintzak betez.

Gainera, toki-entitateek gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin negatiboa badute aurrez aipatutako baldintzetan, edo aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 75etik gorako aurrezki garbi negatiboa edo zorpetzea badute, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako

hogeita hamaikagarrenean zehaztutakoaren arabera, toki-korporazioek plan bat onartu beharko dute osoko bilkuren erabaki baten bidez, finantzak onbideratzeko edo zorra murrizteko, gehienez bost urteko epean aurrez zehaztutako gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinen zeinua edo aurrezki garbiaren zeinua zuzentzeko asmoz edo zorpetze-bolumena zuzentzeko asmoz hurrenez hurren. Azken horri dagokionez, aurretik aipatutako mugaraino zuzendu beharko da, baldin eta bolumen hori ehuneko haren eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 53. artikuluan finkatuaren artean badago (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen). Gehiegi zorpetutako gainerako kasuetan, zorra murrizteko planak zor-maila zuzendu beharko du; gehienez ere, aipatutako azken manuan finkatutako ehunekoraino.

Toki-entitateek Ogasun Ministerioako organo eskudunari jakinarazi beharko dizkiote plan horiek, onespina jaso dezaten; nolahi ere, dagokion autonomia-erkidegoak entitate horien finantza-babesa Autonomia Estatutuan esleituta badauka, hari jakinaraziko dizkiote.

Aurreko onespenak esan nahiko du, ondorio guztietarako, toki-ogasunak arautzen dituen legediak zorpetzeko eragiketak baimentzeko arloan finkatzen dituen mugak betetzen ari dela toki-entitatea.

Aipatutako entitateek, doikuntza-plan bat bete behar badute Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian oinarritutako laguntza finantzarioko neurriak aplikatzearen ondorioz, aldatu egin beharko dute plan hori, eta artikuluko honek aipatzen duen eragiketa plan horretan sartu beharko dute, doikuntza-plan horren jarraipenari buruz informatzen dutenean; kasu horietan, arestian aipatu dugun saneamendu-planaren errekerimendua bete egin dela iritziko zaio.

Toki-entitateko kontu-hartzaileak urteko txosten bat egin beharko du, saneamendu-plana zenbateraino bete den azaltzen duena, eta toki-korporazioaren osoko bilkuran aurkeztuko du, hark haren berri izan dezan. Plan horietako azken urteari dagokion txostena, gainera, toki-entitateen finantza-babesa esleituta daukan Administrazio publikoko organo eskudunari ere igorri beharko dio.

Plan horiei dagokienez zerbait betetzen ez bada, toki-entitateak ezin izango du epe luzeko zorpetze-eragiketarik hitzartu edozein inbertsio-modalitate finantzatzeko. Halaber, toki-entitateen finantza-babesa esleituta daukan administrazio publikoko organo eskudunak aparteko neurriak proposatu ahal izango ditu, eta ukitutako toki-entitateek hartu egin beharko dituzte. Toki-entitateek ez badituzte neurriok ezartzen, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 25. eta 26. artikuluetan ezarritako neurri hertsagarriak eta nahitaez bete beharrekoak aplikatu ahal izango dira.

3. Aurreko 1. apartatuan araututako esparruaz kanpo, debekatutak jo behar da epe laburreko zorraren ondoz ondoko berritze-eragiketak egitea.

III. TITULUA

Aparteko eta presazko neurriak toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetzari buruz

13. artikulua. *Toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetzaren 2018ko behin betiko likidazioa: araubide juridikoa eta saldo zordunak.*

1. Estatuak zergen bidez lortutako diru-sarrerak 2004tik 2018ra nola aldatu diren jakinik, eta behar diren gainerako datuak bilduta, Estatuaren zergetan toki-entitateek duten partaidetzaren 2018ko ekitaldiko behin betiko likidazioa kalkulatu da. Horretarako, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak –martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak– 111-124 bitarteko artikuluetan eta 135-146 bitartekoetan xedatutakoa aplikatu da, eta kontuan hartuko da Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 100-103, 105., 106., 108-111, 113. eta 115. artikuluetan ezartzen duena.

2. Aurreko apartatuan aipatutako likidaziotik sortzen diren saldo zordunak, Estatuaren zergen bidez lortutako diru-sarrereren etekinen lagapenari ez dagokion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-entitateek, likidazio horren ostean Estatuaren zergetan duten partaidetzagatik jasotzen dituzten konturako ekarpenen kargura, hiru urtean gehienez ere, hileko entrega baten ehuneko 25eko atxikipena eginez hiru hilean behin, salbu eta, irizpide hori aplikatuta, adierazitako epea gainditzen bada; horrelakoetan, atxikipenen maiztasuna eta zenbatekoa egokituko dira egoera hori saihesteko. Toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetza kapitulu honen 4. atalean eta 6. atalaren 1. azpiatalean dago definituta.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatutako likidaziotik sortzen diren saldo zordunak, Estatuaren zergen bidez lortutako diru-sarrereren etekinen lagapenari dagokion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-entitateek, Estatuaren zergetan duten partaidetzari dagokion likidazioa egin ondoren sortzen diren saldo hartzekodunen kargura. Partaidetza hori kapitulu honen 4. atalean eta 6. atalaren 1. azpiatalean dago definituta. Aipatutako konpentsazioa egin ondoko gainerako saldo zordunak konpentsazio bidez itzuliko dituzte toki-entitateek, lagapen hartako Estatuaren zerga bakoitzaren konturako ekarpenen kargura; konpentsazio horretan ez dira aplikatuko aurreko apartatuko mugak (ehunekoak eta epeak).

4. Artikulu honen bigarren apartatuan aipatzen diren behin betiko likidazioen zenbatekoa, Estatuaren aldekoa bada, eskubide gisa ezarriko da Estatuko Diru Sarrereren Aurrekontuan, IV. kapituluan.

5. Artikulu honetan aipatzen diren atxikipenak eta Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 125. artikuluan arautzen direnak batera gertatzen direnean, lehenengoek izango dute lehentasuna, eta ez dira kontuan hartuko artikulu horren bigarren apartatuan ezartzen diren ehunekoak kalkulatzeko.

14. artikulua. *Estatuaren zerga-sarrereren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak, Estatuaren zergetan toki-entitateek duten partaidetzaren 2018ko behin betiko likidazioa egiteko aplikatuko direnak.*

Toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetzaren 2018. urteko behin betiko likidazioa egiteko, eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 121. artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, 2004tik 2018ra arteko Estatuaren zerga-sarrereren bilakaera-indizea abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen; 22/2009 Legeak, berriz, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen du, eta zerga-arau batzuk aldatzen ditu). Irizpide horiek honako hauek dira:

1. Estatuaren 2018ko zerga-sarrerak Estatuak ekitaldi horretan bildutako diru kopuruaz osaturik daude, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarengatik, balio erantsiaren gaineko zergarengatik eta zerga bereziengatik autonomia-erkidegoei lagatako tributu-baliabideak kenduta, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

2. 2004ko edo 2006ko Estatuaren zerga-sarrereren kalkulari dagokionez, 22/2009 Legearen laugarren xedapen iragankorreko e) letran ezarritako irizpideak erabiliko dira, eta 2004a edo 2006a –zein dagokion– hartuko da oinarri-urte gisa.

15. artikulua. *Udalen 2018ko ahalegin fiskalari buruzko informazioa ematea.*

Toki-korporazioek beren ahalegin fiskalari buruzko informazioa eman behar dute, Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 124. artikuluan ezartzen duen bezala. Bada, horretarako ziurtagirien erreferentzia 2018. urtea izan behar da, eta ziurtagiriok 2020ko urriaren 31rako eman behar zaizkie Ogasun Ministerioko organo eskudunei (haiek zehaztuko dute nola).

16. artikulua. *Toki-entitateek Estatuaren zergetan 2020an duten partaidetzaren konturako ekarpenak egiteko behar diren kreditu-gehirriak.*

Kreditu-gehirriak ematen dira toki-entitateek Estatuaren zergetan duten partaidetzaren konturako ekarpenak egiteko; hona xehatuta: programa: 942M «Toki-entitateentzako transferentziak Estatuaren sarreretan duten partaidetzagatik»; zerbitzua: 21 «Maila Autonomikoa eta Tokikoa Finantzatzeko Idazkaritza Nagusia. Toki-entitateak»; atala: 36 «Lurralde erakundeak finantzatzeko sistemak»; kontzeptuak, zenbatekoak zehaztuta:

(euroak, milakoak)

46001	Lagapen-ereduan ez dauden udalen aldeko konturako ekarpenak, Estatu Aurrekontu Orokorren I. eta II. kapituluetakoz zerga-kontzeptuetan duten partaidetzarengatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik	187.833,61
46002	Udalen aldeko konturako ekarpenak, Estatu Aurrekontu Orokorren I. eta II. kapituluetakoz zerga-kontzeptuetan duten partaidetzarengatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik. Finantzaketarako Funtz Osagarria	260.495,76
46101	Diputazioen eta uharterko kabildeen aldeko konturako ekarpenak, Estatu Aurrekontuaren I. eta II. kapituluetakoz diru-sarreretan duten partaidetzagatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik	219.857,32

Lehenengo xedapen gehigarria. *Konpentsazioa foru-aldundiei eta Kanaria uharteetako kabildoei estatu-zergen diru-sarreretan gertatu den murrizketarengatik.*

1. Aparteko neurri gisa, COVID-19ak ekarri duen osasun-krisia dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako foru-aldundiek, 2019ko ekitaldian superabita eduki badute kontabilitate nazionalaren arabera, estatu-zerga itunduetan lortutako diru-sarreraren murrizketa konpentsatzeko baliatu ahal izango dute erabili gabeko superabitaren zatia edo, gehiago bada, 2019ko abenduaren 31ko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 2020. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren arabera, eta zerga horiek direla-eta foru-organo horiek autonomia-erkidegoari eta beren toki-entitateei egiten dizkieten ekarpenak kendu ondoren. Aukera horretaz baliatzeko, foru-aldundien zorpetze garbia ezin da handitu 2020ko ekitaldiaren itxierarako.

Diru-sarreraren murrizketa gerakina edo superabita baino gehiago bada, foru-aldundiek konpentsazioa jasoko dute. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak erabakiko du nola jasoko duten konpentsazio hori.

2. Kanaria uharteetako kabildoek ere aplikatu ahal izango dute aurreko apartatuko araua, Kanarietako ekonomia- eta zerga-araubideko Estatuaren araupeko zeharkako zergen bidez lortzen dituzten diru-sarreretan 2020. urtean gertatu den murrizketari dagokionez. Aurreko apartatuaren bigarren paragrafoan aipatzen den konpentsazioa aplikatzeko modua kabildo bakoitzarekin adostuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. *Aparteko neurria: gastu-araua ez aplikatzea toki-entitateei.*

Pandemiak sortu duen egoera larria dela eta, aparteko neurri gisa, 2020ko ekitaldian toki-korporazioen azpisektoreari ez zaio eskatuko gastu-araua betetzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. *«UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalari aplikatuko zaion zerga-araubidea.*

Bat. «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalaren entitate antolatzailearen eta parte hartzen duten taldeen zerga-araubidea:

«UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala antolatuko duen entitateak eta bertan parte hartzen duten taldeek Espainiako lurraldean eratzen dituzten pertsona juridikoen sozietatearen gaineko zergaren kargatik salbuetsita edukiko dituzte

ekitaldian zehar lortzen dituzten errentak, zuzenean lotuta badaude ekitaldi horietan aritzearekin.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan ere aplikatuko zaie «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala antolatuko duen entitateak eta bertan parte hartzen duten taldeek Espainiako lurraldean eratzen dituzten establezimendu iraunkorrek lortzen dituzten errentei, zuzenean lotuta badaude ekitaldi horietan aritzearekin.

«UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala antolatuko duen entitateak eta bertan parte hartzen duten taldeek «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala dela-eta establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten errentak salbuetsita egongo dira, ekitaldi horietan aritzearekin lotuta egonez gero.

Bi. Entitate antolatzaileei edo ekitaldian parte hartzen duten taldeei zerbitzuak ematen dizkieten pertsona fisikoen zerga-araubidea:

1. Ez dira hartuko Espainian lortutako errentatzat egoitza Espainian ez duten pertsona fisikoek entitate antolatzaileari edo talde parte-hartzaileei «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalaren harira ematen dizkieten zerbitzuengatik jasotzen dituzten errentak, baldin eta errentak zuzenean lotuta badaude ekitaldi horietan aritzearekin.

2. «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko Espainiako lurraldera joan eta ondorioz pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun bihurtzen diren pertsona fisikoek ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzea hautatu ahal izango dute, azaroaren 28ko 35/2006 Legeak (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duenak eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituenak) 93. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri eta bertan jartzen diren baldintzekin.

Hiru. «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko inportatzen diren salgaien aduana-araubidea eta zerga-araubidea:

1. Oro har, «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko inportatzen diren salgaien aduana-araubidea honako hauetan ezartzen da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamendua, Batasunaren Aduana Kodea ezartzen duena, eta aplikatu beharreko gainerako aduana-legeria.

2. Aurrekoa alde batera utzi gabe, Batasunaren Aduana Kodeak 251. artikuluan ezartzen duenarekin eta Aldi Baterako Inportazioaren Itunak (Istanbul, 1990eko ekainaren 26a) 7. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri, apartatu honen 1 zenbakian aipatzen diren salgaiak, aldi baterako inportazioaren aduana-araubidean sartzen badira, araubide horretan gehienez ere 24 hilabetez egon ahal izango dira sartzen direnetik; nolahi ere, araubidea bertan behera geratuko da «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala jokatzeko den urtearen ondoko urteko abenduaren 31n.

3. Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Sailari baimena ematen zaio hirugarren apartatu honetan xedatzen dena betetzeko behar diren neurri guztiak hartzeko.

Lau. Balio erantsiaren gaineko zerga:

1. Salbuespena ezartzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 119 bis artikulua 2. zenbakian xedatzen duena aplikatzeko: «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala dela-eta egiten diren eragiketen ondorioz zergaren kuotak jasaten edo ordaintzen dituzten enpresaburuei eta profesionalei, egoitza Batasunean ez dutenei, ez zaie eskatuko elkarrekikotasunik itzulketetan.

2. Salbuespena ezartzen da 37/1992 Legeak 164. artikulua 7. zenbakian xedatzen duena aplikatzeko: egoitza ez Batasunean, ez

Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan ez duten enpresaburuek eta profesionalak eta egoitza Batasunekoan antzeko elkarri laguntzeko tresnaren bat hitzartuta dagoen estatu batean ez dutenek ez dute edukiko ordezkariarik izendatu beharrik lege horretan ezartzen diren betebeharrak betetzeko.

3. Egoitza zergaren aplikazio-eremuan ez duten enpresaburuek eta profesionalak, subjektu pasiboak badira eta kuotak jasaten edo ordaintzen badituzte «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalarekin lotutako eragiketak egiteagatik, eskubidea edukiko dute likidazioaldi bakoitza amaitutakoan kuotak horiek itzul diezazkieten.

Enpresaburu eta profesional horien likidazio-aldia hil naturala da. Hil bateko aitorten-likidazioa hurrengo hileko lehen hogeit egun naturaletan aurkeztu behar dute. Hala ere, urteko azken likidazio-aldiko aitorten-likidazioa urtarrileko lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu beharko da.

Aurreko paragrafoan ezartzen denak ez dakar berekin enpresaburu eta profesional horiek zergaren erregistro-liburuak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Egoitza Elektronikoaren bidez arteztu behar izatea (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, 62.6 artikulua; erregelamendu hori abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Zenbaki honetan xedatzen dena honako hauei ere aplikatuko zaie: ekitaldia antolatzen duen entitateari, bertan aritzen diren taldeei eta aurreko 1. zenbakian aipatzen diren pertsona juridikoei.

Hala ere, egoitza zergaren aplikazio-eremuan ez duten enpresaburuei eta profesionalak, 37/1992 Legearen 119. edo 119 bis artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, artikulua horietan eta zergaren erregelamenduaren 31. eta 31 bis artikuluetan arautzen den prozeduraren bidez itzuliko zaizkie jasandako kuotak (erregelamendu hori 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

4. Eskubideen erabateko salbuespena duen aldi baterako inportazioaren araubidean –aurreko hirugarren apartatuan aipatutakoan– dauden ondasunekin egiten diren eragiketei zergaren legeak 24. artikuluan xedatzen duena aplikatuko zaie.

5. Zergaren legearen 9. artikulua 3. apartatuko g) letran aipatzen den epealdia aurreko hirugarren apartatuko 2. puntuan ezartzen dena izango da «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finalean aldi batez erabiltzen diren ondasunetarako.

6. Zergaren legearen 70. artikulua bigarren apartatuan ezartzen den erregela ez zaie aplikatuko apartatu honen 1. puntuko zerbitzuei honako kasu honetan: zerbitzuak «UEFA Women's Champions League 2020» txapelketako finala dela-eta entitate antolatzaileak edo haietan parte hartzen duten taldeek eratu duten eta egoitza Espainian duen pertsona juridiko batek ematen baditu eta haien funtsa ekitaldi horren antolaketa, sustapena edo babesa bada.†

Laugarren xedapen gehigarria. *Balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen Europar Batasunaren barruko entregei, inportazioei eta eskurapenei aplikatuko zaiena.*

Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen denetik 2020ko urriaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie errege lege-dekretu honen eranskinean aipatzen diren ondasunen Europar Batasunaren barruko entregei, inportazioei eta eskurapenei, baldin eta horien hartzaileak zuzenbide publikoko erakundeak, klinikak edo ospitaleak badira edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikulua hirugarren apartatuan aipatzen diren gizarte-izaerako entitate pribatuak badira. Eragiketa horiek salbuesitako eragiketa gisa dokumentatuko dira fakturan.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Hobaria notariotza-zergen eta Jabetzaren Erregistroko zergen ordainketan.*

1. Hartzekodunak ordainduko ditu 2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuak 18. artikulutik 23.era arautzen duen luzamendua ezarrita daukan mailegu, leasing edo rentingaren nobazioa formalizatzeko eta inskribatzeko notariotzako eta erregistroko zerga-eskubideak, eta ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaie, honetara:

a) Eskrituraren egilespenagatik, hipoteka berritzeko eskriturei dagokien zerga bera sortuko da (hemen arautzen da: 1426/1989 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, Notarioen Zerga onartzen duena; I. eranskinaren 1. zenbakiaren 1. apartatuaren f letra), ehuneko 50 murriztuta. Ez da ezer ordaindu beharko eskrituraren zein kopiaren bosgarren foliotik aurrera (kopiari dagokionez, izan kopia eskuetsia, izan kopia arrunta). Gutxieneko zerga 30 euro izango da, eta gehienekoa, 75.

b) Inskripzioa egiteagatik, berritze aldarazleei dagokien zerga sortuko da (hemen arautzen da: 1427/1989 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, Erregistratzaileen Zerga onartzen duena; I. eranskinaren 2.1.g artikulua). Zerga horri ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaio. Gutxieneko zerga 24 euro izango da, eta gehienekoa, 50 euro.

2. Polizetan esku hartetik eratorritako notario-zergen eskubideak 1950eko abenduaren 15eko Dekretuan ezarritakoak izango dira, 2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23.era aipatutako mailegu, leasing eta renting guztietatik eratorritako kontratu-betebeharrak aldi baterako etetea formalizatzen bada, eta % 50eko hobaria izango dute, 25 euroko gutxieneko mugarekin eta 50 euroko gehieneko mugarekin, kontzeptu guztietarako, kopiak eta helarazpenak barne.

2020ko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulutik 23.era aipatzen diren kontratu-betebeharrak aldi baterako etetea erregistroan egiaztatzeagatik erregistratzaileek dituzten zerga-eskubideak 6 euroko zenbateko finakoekin fakturatuko dira, 1999ko uztailaren 19ko Aginduaren bidez onartutako Ordenantzaren 36.9.g artikulua araber.

Seigarren xedapen gehigarria. *Aldi baterako salbuespenak Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideetarako edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideetarako.*

1. Gas naturaleko Medgaz gasbidea, Espainiaren jurisdikziopeko uretan zehar pasaturik Almeriako terminalera heltzen dena, aldi batez salbuetsita egongo da Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen duenetik; hamabi hilabetez, hain zuzen ere.

2. Gas naturaleko Magreb-Europa gasbidea, Espainiaren jurisdikziopeko uretan zehar pasaturik Tarifan (Cadizen) dagoen terminalera heltzen dena, aldi batez salbuetsita egongo da Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen duenetik; hamabi hilabetez, hain zuzen ere.

3. Aurreko apartatuetan ezartzen diren aldi baterako salbuespenen indarraldia Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren aginduz luzatu ahal izango da. Horretarako, titularrak (edo titularrek), aurrez, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko dio organo horri, salbuespenaren indarraldia amaitu baino zortzi hilabete lehenago gutxienez.

Nolanahi ere, luzapenen iraupena finkatzeko eta onartzeko prozedura aplikatzeko, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 71 bis artikuluan ezartzen duena hartu beharko da kontuan. Hori dela eta, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eskaerak behar bezala ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gutzia eskatu ahal izango die titularrei.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *atzerrian bizi diren klase pasiboetako pentsiodunek bizitza-ziurtagiria aurkezteko epealdia.*

2015ean pentsioak goititzeari eta pentsio-osagarriari buruzko abenduaren 26ko 1103/2014 Errege Dekretuak atzerrian bizi diren klase pasiboetako pentsiodunei bizitza-ziurtagiria aurkezteko 10. artikuluan ezartzen dien epealdia 2020ko abuztuaren 31ra arte luzatzen da. Neurri hori 2020an baino ez da aplikatuko.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *19/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikulua indarraldia luzatzea (19/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 26koa, COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituena nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan).*

Osasun-zentroetako eta zentro soziosanitarioetako langileek SARS-CoV2 birusaz kutsatuta jasaten dituzten gaixotasunak laneko istripuaren ondoriozko laneko kontingentziatza hartzeko neurria aplikatzen segituko da, 2020ko abuztuaren 1etik osasun-agintaritzek osasun-krisi honi aurre egiteko ezarritako prebentzio-neurri guztiak kentzea erabaki arte. Kutsatu direla frogatzeko, laneko istripuaren txostena aurkeztu beharko dute, aipatutako aldiaren barruan egina.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Enpresa estrategikoen kaudimena bultzatzeko funtsaren funtzionamendua (funts hori 25/2020 Errege Lege Dekretuak sortu zuen).*

1. Aplikatu beharreko merkataritzako arautegian ezartzen dena alde batera utzi gabe, eta enpresa estrategikoen kaudimena bultzatzeko funtsaren funtzionamenduaz Ministro Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren II. eranskinaren bosgarren apartatua ezartzen denarekin bat etorritik, Kudeaketa Kontseiluak erabaki ahal izango du hirugarren bati lagatzea funtsaren kargura finantzatzen diren eragiketen tituluak eta eskubideak. Lagapen hori bi modutara egin ahal izango du: prozedura irekian, izan daitezkeen erosle guztiei tratua ematen zaiela bermatuta, edo merkatu antolatuta batean salduz. Kasu batzuetan, lehentasuna eman ahal izango die enpresaren bazkideei edo akziodunei. Baldin eta Estatuak bere partaidetza saltzen badu Ministro Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren II. eranskinaren 5.2 puntuan ezartzen dena baino prezio baxuagoan, eranskin horren 6. apartatua ezartzen diren arauak lau urtez aplikatuko dira, Estatuaren laguntza ematen denetik aurrera zenbatuta.

2. Ministro Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren II. eranskinaren seigarren apartatua ezartzen denarekin bat etorritik, harik eta behin betiko itzuli arte kaudimena sendotzeko funtsaren kargura jasotako aldi baterako laguntza publikoa, onuradunak murrizketa batzuk edukiko ditu (baliteke gero Aldi Baterako Esparruan egokitzapenak ezartzea) eta horiek betetzeko behar diren erabaki sozialak hartu beharko ditu edo, bestela, estatutu-aldaketak egin beharko ditu; hona murrizketak:

a) Gutxienez COVID-19aren pandemia dela-eta ezarritako birkapitalizatzeko neurrien % 75 amortizatu arte enpresa onuradunak ezin zaingo du erosi % 10etik gorako partaidetzarik sektore berean edo gorako zein beherako merkatuetan ari diren enpresetan, honako kasu honetan izan ezik: onuraduna ez bada enpresa handia, Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezartzen denaren arabera, edo Europako Batzordearen baimena badauka, Funtsaren Kudeaketa Kontseiluak eskatuta.

b) Onuradunek debekatuta daukate dibidenduak banatzea, nahitaezkoak ez diren kupoiak ordaintzea eta beren partaidetzak eskuratzea, funtsaren kargura Estatuaren eskuratzea izan ezik.

c) Harik eta funtsaren kargura jasotako aldi baterako laguntza publikoaren % 75 itzuli arte, Administrazio Kontseiluko kideen, administratzaileen edo enpresaren barruko ardura sozial gorenaren dutenen ordainsariak ezingo dira izan 2019ko ekitaldiaren itxieran indarrean izan diren ordainsarien zati finkoa baino gehiago. Birkapitalizazioa gertatzen denean edo horren ondoren aurreko karguetako batean hasten diren pertsonen ordainsariak antzeko

ardura-mailako lanpostuetan ari direnen ordainsarien bestekoak izango dira. Inolaz ere ez da ordainduko primarik, ez bestelako ordainsari-elementu aldakorrik, ez horien baliokiderik.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidezko 2020. ekitaldiko diru-sarrerak.*

1. Indarra bakar-bakarrik 2020ko aurrekonturako duela, kreditu bat sortu ahalko da, amaierako kredituan 1.000 milioi euroko muga duena, baldin eta berotegi-efektuko gasen emisio-eskubideen enkanteen bidezko diru-sarreraren diru-bilketa efektiboaren ehuneko 90 –Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 1.b) paragrafoan aipatzen dena– gehiago bada 23.03.000X.737 aplikazioaren hasierako kredituan aurreikusitako zenbatekoa baino (23.03.000X.737 aplikazioa hau da: «Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, sektore elektrikoaren kostuak finantzatzeko, Energia Iraunkortasunerako Zerga Neurriei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren b) letraren arabera»).

2. Ogasuneko Ministerioko titularraren erabakiaren bidez emango da baimena Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Aurrekontuan aurreko apartatuan aipatutako kreditua eta dagozkion kreditu-gehiarriak sortzeko.

3. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidezko diru-sarrerak, abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritik (17/2012 Legea, abenduaren 27koa, Estatuko 2013ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa), klimaren aldaketaren kontrako borrokaren arloko beste jarduketak batzuetarako erabiliko da, Estatuko 2020ko aurrekontu orokorretan soilik, honako muga hauekin: guztirako diru-bilketaren ehuneko 10 gehienez eta 100.000,00 milako euro gehienez.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileen, autonomia-erkidegoen eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren arteko lankidetzak-hitzarmenak, aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko.*

Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek autonomia-erkidegoekin eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalarekin aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko egindako lankidetzak-hitzarmenetan, kopuru bat aurreratzea aurreikus daiteke, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak garatu beharreko jarduerak finantzatzeko aurreikusitako zenbatekoaren bestekoa gehienez ere.

Hori egiteko, aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmenak formalizatu baino lehen, Ministro Kontseiluak baimena eman beharko du. Helburu horrekin, Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren titularrak, Ogasun Ministerioaren txostena jaso ondoren, dagokion proposamena egingo dio Ministro Kontseiluari.

Hitzarmen horietan, eta hitzarmen horietan bakarrik, ez da aplikatuko Aurrekontuen Lege Orokorren 47. artikulua 1. apartatuan xedatutakoa, gastuaren konpromisoa hartzen den ekitaldian bertan gastuak egiten hasi beharri dagokionez.

Xedapen indargabetzailea. *Arauk indargabetzea*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko arauetan dauden xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. *COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, martxoaren 31koa, COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen; 20. artikulua 2. apartatua, hain zuzen:

«2. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan arautzen denarekin bat etorri superabita 23. gastu-politikari aplikatzeko, onartu beharreko kreditua gaitzeko ezohiko kredituaren edo kreditu-gehiarriaren aurrekontu-aldaketa toki-korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen baten bidez izapidetuko da, eta ez zaizkio aplikatuko Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 169. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioei eta publizitateari buruzko arauak (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo lehenengo osoko bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da, eta, gero, dagokien aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira.

Osoko bilkuran baliozkotzen ez bada, onartutako dekretua ez da ez balio gabetuko ez etengo. Nolanahi ere, administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da; horretarako, epealdiak osoko bilkuraren erabakia argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko dira.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bategina aldatzea, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.*

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bateginaren 45.I.B) artikulua 30. zenbakia aldatzen da –testu hori irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen–, eta honela gelditzen da:

«30. Ekonomiaren eta Enpleguaren aldeko Presako Neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuak 3. artikulutik 9.era turismoaren sektorerako arautzen duen hipoteka-luzamendua aplikatuz eta COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurrien uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuak 18. artikulutik 23.era salgaien garraio publikoaren eta eskatu ahalako bidaiarien autobuseko garraioaren sektorerako arautzen duen luzamendua aplikatuz hipoteka-mailegutan eta -kredituetan eta hipoteka-bermerik gabeko errentamendu, mailegu, leasing eta rentingetan luzamenduak formalizatzeko eskriturak.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen lehenengo xedapen iragankorra aldatzea.*

Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen lehenengo xedapen iragankorraren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela gelditzen da:

«Jokoaren Batzorde Nazionalerako aurreikusitako eskumenak Kontsumo Ministerioioko Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak egikaritzeko ditu, lege honen 49. artikuluan aipatzen diren tasen kudeaketarekin eta bilketarekin lotutakoak izan ezik, horiek Zerga Administrazioioko Estatu Agentziak egikaritzeko baititu.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Sinadura Elektronikoaari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legea aldatzea.*

Sinadura Elektronikoaari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 13. artikulua apartatu bat gehitzen zaio, seigarrena; hona:

«6. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularraren agindu bidez zehaztuko dira nortasuna eta, hala badagokio, ziurtagiri kualifikatu baten eskatzailearen beste ezaugarri espezifiko batzuk egiaztatzeko aplikatu beharreko baldintza eta betekizun teknikoak, presentzia fisikoaren pareko segurtasuna ematen duten beste identifikazio-metodo batzuen bidez.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea.*

Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzen da, eta honela gelditzen da:

Bat. Paragrafo bat gehitzen da 58. artikulua amaieran, a) epigrafean; hona:

«Garraio-sarearen kudeatzaileek akordio teknikoak egin eta mantendu ahal izango dituzte Espainiaren eta Europar Batasunetik kanpoko herrialdeen arteko gasbideak kudeatzearen inguruko gaiez, baina akordio horiek bateragarriak izan beharko dira Batasunaren barruko gas naturalari buruzko arautegiarekin eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren zirkularrekin eta ebazpenekin. Akordio horiek Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaizkio.»

Bi. 63 quater artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«1. Gasbideen sare nagusiko instalazioen bat daukaten enpresek, ez badituzte betetzen 63.3 artikuluan jardueren bereizketaz ezartzen diren baldintzak, instalazioaren jabetza 2009ko irailaren 3a baino lehenagotik daukatela, instalazioaren kudeaketa sare-kudeatzaile lokabe bati lagatzea erabaki ahal izango dute. Gauza bera egin ahal izango dute 2019ko maiatzaren 23a baino lehen Europar Batasunetik kanpoko herrialdeekin konektatzeko instalazioen bat eduki dutenek ere.

Hori dela eta, sare-kudeatzaile lokabea izateko, garraio-jardueren arteko bereizketaren baldintzak betetzen direla frogatzen duen ziurtagiria lortu duen enpresa bat proposatuko dute, eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari onartzeko eskatuko diote. Izendapena gauzatzeko, ezinbestekoa izango da Europako Batzordeak proposamena onartzea. Sare-kudeatzaile lokabeak lege honetan eta berau garatzeko arautegian ezartzen diren baldintzetako bat bete ezean, ukatu ahal izango da hura izendatzea.»

Hiru. 71. artikulua honela gelditzen da:

«1. 70. artikulua 6. apartatua aipatzen den hirugarrenei sarbidea eman beharretik salbu gelditzeko eskatu ahal izango da, honako baldintza hauek betez gero:

a) Inbertsioak gasaren horniduraren arloko lehia bultzatu behar du eta horniduraren segurtasuna hobetu behar du.

b) Inbertsioaren berezko arriskua handia izan behar da; salbuespena eman ezean inbertsioa ez egiteko modukoa, hain zuzen ere.

c) Azpiegitura ezin da izan hura eraikiko den sareko garraiolariena, nortasun juridikoaren aldetik behintzat.

d) Azpiegitura erabiltzen dutenei kanonak kobratuko zaizkie.

e) Salbuespena ezin da izan kaltegarria seguruenik inbertsioaren eragina jasoko duten merkatuetako lehiarako, ez Europar Batasunaren gas naturalaren barne-merkatuaren funtzionamendurako, ez inbertsioen eraginpeko sare arautuen funtzionamendua efizientea izateko, ez Europar Batasunaren barruan gas naturalaren hornidura segurtatzeko.

Hirugarrenei sarbidea eman behararen salbuespenak azpiegitura berriaren edo ahalmena handitu zaion lehengo azpiegituraren ahalmen guztia zein haien ahalmenaren atal bat har dezake.

2. Hori dela eta, instalazioaren titularrak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari eskatuko dio salbuespena, eta hark, erabaki aurretik, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena eskatuko du.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak jasotzen dituen salbuespen-eskaera guztien kopiak bidaliko ditu Europako Batzordera, eta kasu bakoitzak banaka aztertuko da, honako alderdi hauek kontuan hartuz, besteak beste: eraikiko den azpiegitura berriaren ahalmena edo aldatuko den azpiegituraren ahalmen gehigarria, proiektua amaitzeko ezarritako epealdia eta gasaren sektorearen inguruabarrak. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere txostenean salbuespenaren iraunaldia proposatuko du eta azpiegitura bereizkeriarik gabe erabiltzeko baldintzak ezarriko ditu.

Horrez gainera, txosten horretan Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak azpiegituraren ahalmena kudeatzeko eta esleitzeko arauak eta mekanismoak proposatuko ditu. Nolanahi ere, ahalmen berria (norberak erabiltzekoa barne) esleitu aurretik, erabiltzaile izan daitezkeenei galdetuko zaie zergatik nahi duten kontratatu. Galdeketaren emaitzak kontuan hartuko ditu Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, artikulua honen 1. apartatuan ezartzen diren irizpideak betetzen diren ebaluatzeko.

Erabiltzen ez den ahalmena gardentasunarekin, modu objektiboan eta bereizkeriarik gabe eskaini beharko da merkatuan, eta azpiegituraren erabiltzaileek eskubidea edukiko dute kontratatutako ahalmena bigarren mailako merkatuan saltzeko.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako hauekin hitz egingo du salbuespenaren gaineko azken txostena eman aurretik:

a) Azpiegitura berriak seguruenik eragina edukiko duen Batasuneko estatuetakoa agintaritzaren arautzaileekin.

b) Azpiegitura Europar Batasunaren sarera konektaturik badago Batasuneko estatu baten jurisdikzioan eta sorburua edo xedea batasunetik kanpoko herrialde batean edo gehiagotan badauka, herrialde horietako agintaritzaren eskudunekin.

Hirugarren herrialde bateko agintaritzaren batek ez badu erantzuten bi hilabete igaro baino lehen, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aurrera egin ahal izango du salbuespenaren izapideekin.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena eta espedienteko dokumentazio guztia Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari helaraziko dizkio; hark ebazpena emango du agindu baten bidez, eta agindua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da. Gainera, agindu hori eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak emandako txostena erakunde horren webgunean plazaratuko dira.

4. Salbuespenaren agindua Europako Batzordeari jakinaraziko zaio, beraren inguruan dagoen eta behar den informazio guztiarekin batera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauaren 36.9 artikulua ondo ondo, eta, gero, ezarri edo ezeztatu egingo da, kasuan kasukoa, Batzordeak artikulua horrekin bat etorri hartzen duen erabakiaren arabera.

5. Europako Batzordeak onartzen duen salbuespen-erabakia indarririk gabe geldituko da onartzen denetik bi urte igarotakoan, baldin eta ordurako azpiegitura eraikitzeari ekin ez bazaio, eta onartzen denetik bost urte igarotakoan, baldin eta ordurako azpiegitura operatiboa ez bada. Nolanahi ere, bi kasu horietan Europako Batzordeak erabaki dezake badaudela atzerapenerako arrazoiak, eta horrelakoetan erabakiak ez du indarririk galduko.

6. Salbuespena eskatzen den azpiegitura Europar Batasuneko herrialde batean baino gehiagotan badago, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauaren 36.4 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.»

Lau. 71 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

«71 bis artikulua. *Salbuespenak Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideetarako edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideetarako.*

1. Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideak edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideak, 2019ko maiatzaren 23rako eraikita daudenak, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen duena bete beharretik salbu gelditu ahal izango dira hogei urtez, gehienez (aldi hori kasu jakin batzuetan luzatu ahal izango da, 3. apartatuan arautzen denaren arabera justifikatuz gero).

2. Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideen edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideen jabeek lehenengo apartatuan arautzen den albuespena eskatu ahal izango diote Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari. Eskieran albuespenerako arrazoi objektiboa azaldu beharko dute (egindako inbertsioa berreskuratzea, horniduraren segurtasuna edo Europar Batasunaren gasaren barne-merkatuaren funtzionamendua) eta albuespena ezin da izan kaltegarria lehiarako.

3. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak ebazpena emango du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak albuespenak lehiari edo Batasunaren gasaren barne-merkatuaren funtzionamenduan edukiko lukeen eraginari buruzko txostena eman ondoren, eta bertan albuespena emango da aurreko paragrafoan aipatzen diren arrazoi objektiboak betetzen direla egiaztatuz gero; bestela, ukatu egingo da. Albuespenaren luzapenaren ebazpenean mugak ezarri ahal izango dira aipatutako helburuak lortzen laguntzeko.

4. Aurreko apartatuetan arautzen den albuespenak ez dakar berekin instalazioek gas naturalaren sektoreko ordainsarien araubidea izatea.

Erabiltzen ez den ahalmena gardentasunarekin, modu objektiboan eta bereizkeriarik gabe eskaini beharko da merkaturan, eta azpiegituren erabiltzaileek eskubidea edukiko dute kontratatutako ahalmena bigarren mailako merkaturan saltzeko.

5. Xedapen honetan arautzen den albuespena jasotzen duten instalazioen titularrek urtero txostena bidali beharko dute Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalera eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora, eta bertan zehaztu beharko dute aurreko urte naturalean gasbide bakoitzaren ahalmena nola erabili den, zer enpresak erabili dituzten instalazioak eta zenbat gas garraiatu duen bakoitzak, zenbatekoak izan diren sarbide-prezioak, eta erakunde horiek eskatzen duten gainerako informazio guztia. Txosten hori urteko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik bidali beharko da.

Salbuespena onartzen denetik bi urte igarotakoan, salbuetsitako instalazioen titularrek urriaren 7ko 34/1998 Legearen 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen dena betetzen dela bermatzeko egingo diren jarduketan egutegia bidali beharko dute Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora albuespenaren indarraldia amaitu baino lehen.

6. Instalazioen titularrek berezita arteztu beharko dituzte garraio-jardueren kontuak eta merkaturatze-jardueren kontuak, eta kontu horiek aurreko apartatuan aipatzen den urteko txostenean sartu beharko dituzte.»

Bost. Urriaren 7ko 34/1998 Legeari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio; hona testua:

«Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Akordioak Europar Batasunekoak ez diren herrialdeekin garraio-gasbideei buruz.*

Espainiak negoziazioak egiten dituenean Europar Batasunekoak ez diren herrialdeekin Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 13ko 2009/73/EE

Zuzentarauaren aplikazio-eremuko garraio-gasbideen kudeaketari buruzko akordioak sinatzeko edo sinatuta dauden akordioak aldatzeko edo zabaltzeko, zuzentarau horrek 49 ter artikuluan xedatzen duena aplikatuko da.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzea.*

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrena aldatzen da eta honela geratzen da:

«Azken xedapenetako zazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta urtebetera jarriko da indarrean.

Hala ere, ahalordetzeen erregistro elektronikoari, erregistro elektronikoari, enplegatu publiko gaituen erregistroari, Administrazioaren sarbide-puntu nagusi elektronikoari eta artxibo elektroniko bakarrari buruzko xedapenek 2021eko apirilaren 2tik aurrera izango dituzte ondorioak.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legea aldatzea.*

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legea aldatzen da eta honela gelditzen da.

Bat. Bigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

«3. Ordenamendu juridikoko edozein arauk Jokoaren Batzorde Nazionalari egiten dizkion aipamenak Kontsumo Ministerioko Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari egiten zaizkiola ulertuko da, Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak Jokoaren Batzorde Nazionala ordeztu baitu eta haren eskumenak bere gain hartu baititu, betiere hamargarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.»

Bi. Hamargarren xedapen gehigarria aldatzen da eta honela geratzen da:

«Hamargarren xedapen gehigarria. *Kontsumo Ministerioko Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak beren gain hartzen dituzten jokoaren arloko eginkizunak.*

Kontsumo Ministerioko Joko Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko ditu Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak Jokoaren Batzorde Nazional desagertuari esleitzen dizkion xedea, eginkizunak eta eskumenak, lege horren 49. artikuluan aipatzen diren tasen kudeaketarekin eta bilketarekin lotutakoak izan ezik, horiek Zerga Administrazioako Estatu Agentziak egikarituko baititu.»

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Ekonomiaren Suspertzea eta Enplegua Bultzatzeko Premiazko Neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Ekonomiaren Suspertzea eta Enplegua Bultzatzeko Premiazko Neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 44. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«1. Dirulaguntzak kudeatzeko, entitate laguntzaile batek edo batzuek esku hartu ahal izango dute; entitate horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. eta 15. artikuluetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak bete beharko dituzte, eta lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betez hautatuko dira. Entitate laguntzailea aukeratuz gero, enpresa-entitate publikoek eta Estatuko merkataritza-sozietateek

bakarrik jardun ahal izango dute entitate laguntzaile gisa. Entitate laguntzaileak ordainketen aurrekontu-funtsak eman eta banatuko dizkie onuradunei.»

Bi. 46. artikulua 4. apartatua aldatzen da eta honela gelditzen da:

«4. Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, laguntza ordainduko zaio onuradunari; laguntzaren zenbatekoak bat etorri beharko du eskaeran adierazitakoarekin. Ordainketak onuradunak eskabidearen galdera sortan adierazitako banku-kontu batera eginiko transferentzien bidez egingo dira.»

Hiru. 47. artikulua d) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

«d) Laguntzaren onuradunak gutxienez bi urtez izan beharko ditu ibilgailuaren titulartasuna eta matrikulazioa Espainian, dirulaguntza ematen denetik zenbatzen hasita, renting gisako eragiketen kasuan izan ezik, horien kasuan errentamendu-kontratuak gutxienez bi urteko iraupena ezarri beharko baitu indarrean jartzen denetik, eta 2020ko ekainaren 15a edo geroagoko data izango baitu haien formalizazioak.»

Lau. Lehenengo xedapen gehigarriaren lehen paragrafoa aldatzen da eta honela gelditzen da:

«Onartzen da 250 milioi euroko kreditu berezi bat ematea Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioan, 20.09.422B.741 "Renove Plana, Automobilgintzaren balio-katea bultzatzeko Planaren barruan" aurrekontu-aplikazioa.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra aldatzea.*

Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikulua 2. apartatua paragrafo bat gehitzen da, h) paragrafoa; hona testua:

«h) Jarduera uzteगतिको babes-sistemara bideratutakoak.»

Azken xedapenetako hamargarrena. *6/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, martxoaren 10ekoa, zeinaz presako neurri batzuk hartzen baitira ekonomiaren arloan eta osasun publikoa babesteko.*

6/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, martxoaren 10ekoa, zeinaz presako neurri batzuk hartzen baitira ekonomiaren arloan eta osasun publikoa babesteko; hain zuzen ere, bosgarren artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

«Bosgarren artikulua. *COVID-19 birusaren ondorioz langileak bakartuta edo kutsatuta egon diren aldiak edo haiek bizi diren edo lan egiten duten udalerritik irteteko dituzten mugek irauten duten aldiak lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartzea, salbuespen gisa.*

1. Osasun publikoa babesteko, salbuespena eginez, lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartuko dira COVID-19 birusaren ondorioz langileak bakartuta edo kutsatuta egon diren aldiak, Gizarte Segurantzako sistemaren aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoari lotutako kontuetarako soilik, salbu eta frogatzen bada lana egitean kutsatu dela gaixotasunaz eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 156. artikuluan ezarritako baldintzetan; kasu horretan, lan-istripuztat hartuko da (testu bategin hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Salbuespenez, babes hori emango zaie martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua (COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena) aplikatzen ez den jardueretan zerbitzuak emateko beren udalerritik beste batera joan behar duten langileei ere, baldin eta agintari eskudunak

erabaki badu langile horiek bizilekua duten udalerrira pertsonak sartzea edo hartatik pertsonak irtetea mugatzea, agintari eskudunak berariaz ukatu badie langile horiei lekualdatzeko aukera, langileok ezin badute beren lana telematikoki egin zerbitzuak ematen diharduten enpresari edo langileei berei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik eta langileok ez badute beste prestazio publikorik jasotzeko eskubiderik. Bizi diren udalerrira sartzeko edo hartatik irteteko murrizketak hasten direnetik aurrera izango ditu ondorioak neurriak, edo, langileak bizilekua beste udalerrira batean baldin badu, enpresak bere lantokia duen udalerrira sartzeko edo hartatik irteteko mugak hasten direnetik aurrera, eta, betiere, baja-agiria izan beharko dute.

Langileak bizilekua edo enpresak lantokia duen herria mugatzeko erabakia eta lekualdatzeko ukapena bizilekuko udalak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira, edo, kasua bada, mugatzeak ukitutako lantokia non dagoen, hango udalak emandako ziurtagiriaren bidez, dagokion osasun-zerbitzu publikoko organoan aurkeztuta. Era berean, lana telematikoki egiteko ezintasuna enpresaren ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da, edo, norberaren konturako langileen kasuan, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, osasun-zerbitzu publikoko organo berean aurkeztuta.

Bizilekua lantokia dagoen udalerritik kanpo duten besteren konturako langileen kasuan, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaz gain, honako hauek egiaztatu beharko dira:

- a) Langilearen bizilekua, dagokion errolda-ziurtagiriaren bidez.
- b) Langileak mugatzearen eraginpean dagoen udalerriko lantokian egiten duela lan, enpresaren ziurtagiriaren bidez.
- c) Enpresak ez duela lantokia itxi, enpresaren ziurtagiriaren bidez.

2. Salbuespenezko prestazio horren iraupena baja-agiriak eta dagokion alta-agiriak zehaztuko dute.

Agintari eskudunak erabaki badu, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik, langileek bizilekua duten udalerriko edo haiek zerbitzuak ematen dituzten enpresak lantokia duen udalerriko irteerak edo sarrerak mugatzea, eta langileak 10/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan aipatzen diren besteren konturako langileak badira (10/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaz berreskuratzeko baimen ordaindu bat arautzen baita besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko asmoz), baja-agiri bat emango da, mugikortasuna mugatzearen hasieradatatik aurrerako ondorioak dituena, eta alta-agiri bat, 2020ko martxoaren 29tik aurrerako ondorioak dituena.

Norberaren konturako langileak edo autonomoak badira, eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik erabakitako murrizketak mugatu egiten badu bizi diren udalerritik irtetea edo, bizilekua beste batean izanda, udalerrian sartzea mugatua badute eta, ondorioz, beren jardura egitea erabat eragozten bazaie, prestazioa jasotzeko eskubidea baja-agiriarekin hasiko da, mugatzea hasten den egunetik, eta hura amaitu arte iraungo du, eta ezin izango du iraun alarma-egoera amaitzen den egunetik aurrera.

Aldi baterako ezintasunagatik sorospen hori bateraezina da jaso diren soldatekin eta Gizarte Segurantzaren beste edozein prestazio ekonomiko jasotzeko eskubidearekin, kontingentzia arruntengatik edo profesionalengatik aldi baterako ezintasuna barne. Kasu horietan, artikulua honetan aurreikusitako subsidioa ez den Gizarte Segurantzaren prestazioa jasoko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, langileak soldatarik jasotzen ez duela egiaztatzen duen enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko dio osasun-zerbitzu publikoko dagokion organoari.

3. Gertaera eragilea izan den egunean, Gizarte Segurantzako edozein araubidetan alta emanda dagoen norberaren edo besteren konturako langileak sor dezake prestazio hau jasotzeko eskubidea.

4. Gertaera eragilearen data langilea bakartzea, haren mugimenduak mugatzea edo haren gaixotasuna zehaztea erabakitzen den eguna izango da, nahiz eta baja-agiria data horren ondoren egin.»

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernuari eta Ogasun ministroari eta, behar den kasuetan, gaiaren arabera eskuduna den Ogasun Ministerioko organoari baimena ematen zaie, bakoitzari bere eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan ezartzen dena aplikatzeko, betearazteko eta garatzeko behar diren xedapenak emateko eta behar diren neurriak hartzeko.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan 13. eta 14. arauen babesean ematen da. Arau horietan, eskumen eskusiboa esleitzen zaio Estatuari jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarrien eta koordinazioaren gainean eta Ogasun Publikoaren eta Estatuaren zorraren gainean.

Aurreko paragrafoan ezartzen denaz gainera:

Bosgarren xedapen gehigarria Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikuluan babesean ematen da; artikulua horrek erregistro eta agerkari publikoak antolatzeke eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari.

Seigarren xedapen gehigarria eta azken xedapenetako bosgarrena Espainiako Konstituzioaren 149.1.25 artikuluan babesean ematen dira; artikulua horretan, meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak ezartzeko eskumen eskusiboa esleitzen dio Konstituzioak Estatuari.

Zazpigarren, zortzigarren eta hamaikagarren xedapen gehigarriak eta azken xedapenetako bederatzigarrena eta hamargarrena Konstituzioaren 149.1.17 artikuluan ezarritakoaren babesean ematen dira; artikulua horrek eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari Gizarte Segurantzaren oinarriko legegintzaren eta araubide ekonomikoaren gainean, autonomia-erkidegoek haren zerbitzuak betearaztea eragotzi gabe.

Bederatzigarren xedapen gehigarria Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da; artikulua horrek zigor- eta prozesu-legegintzari buruzko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari.

Hamargarren xedapen gehigarria Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan xedatzen denaren babesean ematen da; artikulua horrek ingurumena babesteko oinarriko legedia egiteko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babes-arau gehigarriak emateko dituzten ahalmenak. Gainera, artikulua horren 1. eta 2. apartatuak Konstituzioaren 149.1.25 artikuluan babesean ere ematen dira; artikulua horretan, meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriak ezartzeko eskumen eskusiboa ematen dio Konstituzioak Estatuari.

Azken xedapenetako seigarrena Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan ezarritakoaren babesean ematen da; administrazio-prozedura erkidea arautzeko eskumen eskusiboa esleitzen dio artikulua horrek Estatuari, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen berezko antolamendutik datozen berezitasunak.

Azken xedapenetako zortzigarrena Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan babesean ematen da; ingurumena babesteko oinarriko legeria egiteko eskumen eskusiboa esleitzen dio artikulua horrek Estatuari, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babes-arau gehigarriak emateko dituzten ahalmenak.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Europar Batasuneko Zuzenbideko arauak txertatzea.*

Errege lege-dekretu honen bidez, guztiz txertatuta geratzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 2019/692 Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan (2019/692 Zuzentarauak 2009/73/EE Zuzentaraua aldatu du, gas naturalaren barne-merkatuari buruzko baterako arauena).

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Indarreen jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren kalterik gabe.

Madrilen, 2020ko abuztuaren 4an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

ERANSKINA

Laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren ondasunen zerrenda

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NC kodea
1	Gailu medikoak.	Zainketa intentsiboetarako eta azpi-intentsiboetarako arnagailuak.	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako aparatuak) Fluxu bereizleak.	ex 9019 20 00 ex 9019 20
		Oxigenoterapiako bestelako aparatuak, oxigeno-dendak barne.	ex 9019 20 00
		Gorputzaz kanpoko mintz bidezko oxigenazioa.	ex 9019 20 00
2	Monitoreak.	Parametro anitzeko monitoreak, eramangarriak barne.	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 59 00 ex 8528 52 10
3	Ponpak.	<ul style="list-style-type: none"> – Kanpo-nutriziorako ponpa peristaltikoak – Sendagaien infusio-ponpak – Xurgapen-ponpak. 	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Xurgatze zundak.	ex 9018 90 50
4	Hodiak.	Hodi endotrakealak.	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak.	ex 9019 20 00
			ex 3917 21 10 – ex 3917 39 00
5	Kaskoak.	CPAP/NIV aireztapen mekaniko ez-inbaditzailerako kaskoak.	ex 9019 20 00
6	Aireztapen ez-inbaditzailerako maskarak (NIV).	Aurpegi osoko maskarak eta maskara orononasalak, aireztapen ez-inbaditzailerako.	ex 9019 20 00
7	Xurgatzeko sistemak/makinak.	Xurgatze-sistemak.	ex 9019 20 00
		Xurgatze elektrikoko makinak.	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8	Hezegailuak.	Hezegailuak.	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok.	Laringoskopiaok.	ex 9018 90 20
10	Hornigai mediko suntsikorrak.	<ul style="list-style-type: none"> – Intubazio-kitak – Guraize laparoskopikoak. 	ex 9018 90
		Xiringak, orratzarekin edo gabe.	ex 9018 31
		Metalezko orratz tubularrak eta josturetarako orratzak.	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak eta kanulak.	ex 9018 39
		Sarbide baskularrerako kitak.	ex 9018 90 84

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NC kodea
11	Monitorizazio-estazioak - Pazienteak monitorizatzeko tresnak – Elektrodiagnostikorako tresnak.	Zainketa intentsiboetarako monitorizazio-estazio zentralak Pultsu oximetroak.	ex 9018 90 ex 9018 19
		– Pazienteak monitorizatzeko gailuak – Elektrodiagnostikoko aparatuak.	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	ex 9018 12 00
13	Elektrokardiografoak.	Elektrokardiografoak.	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak/ eskanerrak.	Ordenagailu bidezko tomografia-sistemak.	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak.	– Aurpegirako ehun-maskarak, iragazki ordezkagarriak eta pieza mekanikorekin gabe, horren barnean direla ehundu gabeko ehun-materialarekin egindako maskara kirurgikoak eta erabili eta botatzeko aurpegiko maskarak. – Aurpegiko maskarak, FFP2 eta FFP3 motakoak.	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak.	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Gas-maskarak, agente biologikoetatik babesteko pieza mekanikoak edo iragazki ordezkagarriak dituztenak. Begi-babesa edo aurpegiko ezkutuak dituzten maskarak barne.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak.	Plastikozko eskularruak.	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak.	4015 11 00
		Gomazko beste eskularru batzuk.	ex 4015 19 00
		Puntuzko eskularruak, plastikoz edo gomaz estaliak edo inpregnatuak.	ex 6116 10
		Ehunezko eskularruak, puntuzkoak ez direnak.	ex 6216 00
17	Aurpegirako babesak.	– Erabili eta botatzeko aurpegi-babesgarriak eta aurpegi-babesgarri berrerabilgarriak – Plastikozko aurpegi-babesleak (begi-azala baino azalera handiagoa estaltzen dutenak).	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak.	Babes-betaurreko handiak eta txikiak (googleak).	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NC kodea
19	Osoko jantziak. Mantal iragazgaitzak - askotariko motak - hainbat tamaina. Erabilera kirurgiko/medikorako babes-jantziak, feltroz edo ehundu gabeko oihalez eginak, baita inpregnatuta, estalita, gaineztatuak edo ijeltuak ere (56.02 edo 56.03. partidetako ehunak).	Erabilera anitzeko arropa (barnean daudela eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak), goma bulkanizatuzkoa.	ex 4015 90 00
		Jantziak.	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak.	ex 4818 50 00
		5903, 5906 edo 5907 partidetako puntuzko ehunekin egindako jantziak.	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Kaltzetazko ehuna duten beste jantzi batzuk.	6114
		Erabilera kirurgikorako/medikorako babes-jantziak, feltroz edo ehundu gabeko oihalez eginak, inpregnatuak edo inpregnatu gabeak, estaliak, gaineztatuak edo ijeltuak (56.02 edo 56.03. partidetako ehunak). Ehundu gabeko materialez egindako jantziak («spun-bonded») barne.	ex 6210 10
		Beste babes-jantzi batzuk, kautxuztaturiko ehunez eginak, edo inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo ijeltutakoak (59.03, 59.06 edo 59.07. partidetako ehunak).	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak./galtzak	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	ex 3926 90 97
			ex 4818 90
			ex 6307 90 98
21	Kapelak.	Txano puntadunak.	ex 6505 00 30
		Txanoak eta bururako bestelako babesak eta edozein materialetako saretak.	ex 6505 00 90
		Buruko gainerako txanoak eta babesak, forratuta/ doituta edo ez.	ex 6506
22	Termometroak.	Zuzeneko irakurketarako likido-termometroak «Beira-merkurioko» termometro kliniko estandarrak barne hartzen ditu.	ex 9025 11 20 ex 9025 11 80
		Termometro digitalak edo termometro infragorriak, tenperatura kopetan neurtzeko.	ex 9025 19 00
		Eskuak garbitzeko xaboia eta prestatutako produktu organiko tentsioaktiboak (apain-mahaiko xaboia).	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboia.	Xaboia eta produktu organiko tentsioaktiboak Xaboia beste forma batzuetan.	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboia ez direnak) – Kationikoak.	ex 3402 12
		Azala garbitzeko produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak, likido edo krema itxurakoak eta txikizkako salmentarako prestatuak, xaboia dutenak edo ez.	ex 3401 30 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NC kodea
24	Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile-banagailuak.	Horman instala daitezkeen eskuetarako desinfektatzaile-banagailuak.	ex 8479 89 97
25	Soluzio hidroalkoholikoa litrotan.	2207 10: desnaturalizatu gabe, % 80ko alkohol etilikoko bolumena edo gehiago dutenak.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizatua, edozein kontzentrazio.	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, % 80ko alkohol etilikoko bolumenetik behera dutenak.	ex 2208 90 91 ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa % 3an, litrotan. Gainazalak garbitzeko prestakin desinfektatzaileetan sartutako hidrogeno peroxidoa.	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua edo ez.	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa soltean.	
		Eskuetarako desinfektatzailea.	ex 3808 94
		Beste prestakin desinfektatzaile batzuk.	
27	Larrialdietako garraiagailuak.	Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa (gurpil-aulkiak).	ex 8713
		Pazienteak ospitaleetan edo kliniketan eramateko ohatilak eta orgatxoak.	ex 9402 90 00
28	ARN erauzgailuak.	ARN erauzgailuak.	9027 80
29	COVID-19rako proba-kitak / Proba diagnostikoetan erabiltako tresnak eta aparatuak.	– Koronabirusaren proba diagnostikorako kitak – Immunologia-erreakzioetan oinarritutako diagnostiko-erreaktiboak – Ekipoa: isipiak eta birusa garraiatzeko ingurunea.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90 ex 3821 00
		Diagnostiko-erreaktiboak, polimerasaren kate-erreakzioan oinarrituta (PCR), azido nukleikoaren proba.	ex 3822 00 00
		Laborategi klinikoetan in vitro diagnostikorako erabiltzen den tresneria.	ex 9027 80 80
		Laginetarako kitak.	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipiak.	Guata, gasa, bendak, kotoi-txotxak eta antzeko gaiak.	ex 3005 90 10
			ex 3005 90 99
31	Kanpaina-ospitaleak instalatzeko materiala.	Ospitaleko oheak.	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpin-dendak.	ex 6306 22 00, ex 6306 29 00
		Plastikozko karpak/kanpin-dendak.	ex 3926 90 97

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NC kodea
32	Botikak.	<ul style="list-style-type: none"> – Hidrogeno peroxidoa, medikamentu gisa aurkeztuta Paracetamola – Hidroxioklorokina/klorokina – Lopinavir/Ritonavir – Remdesivir – Tocilizumab – Ruxolitinib. 	<ul style="list-style-type: none"> ex 3003 90 00 ex 3004 90 00 ex 2924 29 70 ex 2933 49 90 ex 3003 60 00 ex 3004 60 00 ex 2933 59 95 ex 2934 10 00 ex 2934 99 90 ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 2933 59 95
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	<ul style="list-style-type: none"> ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1- propanola (alkohol propilikoak) eta 2- propanola (alkohol isopropilikoak).	1- propanola (alkohol propilikoak) eta 2- propanola (alkohol isopropilikoak).	ex 2905 12 00
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol-peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol-peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	ex 2909
36	Azido formikoa.	Azido formikoa (eta gatz deribatuak).	<ul style="list-style-type: none"> ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salizilikoa.	Azido salizilikoa eta gatz deribatuak.	ex 2918 21 00
38	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabilitako motakoak.	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunekin eginak, prozedura kirurgikoetan erabilitako motakoak.	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, izan inpregnatuak, gaineztatuak, estaliak edo ijeztuak, izan horiek gabeak.	Ehundu gabeko oihalak, izan inpregnatuak, gaineztatuak, estaliak edo ijeztuak, izan horiek gabeak.	<ul style="list-style-type: none"> ex 5603 11 10 - ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoko, medikoko edo higienikoko artikulua, txikizkako salmentarako ez direnak.	Paperezko ohe-estalkiak.	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, beirateria higienikoa edo farmazeutikoa.	Laborategiko beirateria, beirateria higienikoa edo farmazeutikoa, kalibratuta edo graduatuta egon zein ez egon.	<ul style="list-style-type: none"> ex 7017 10 00 ex 7017 20 00 ex 7017 90 00
42	Fluximetroa, Thorpe hodiko fluxu-neurgailua oxigenoa emateko, 0-15 L/min.	Thorpe hodiko fluxu-neurgailuak osagai hauek dauzka: sarrera- eta irteera-atakak, erregulagailua, balbula eta neurketa-hodi koniko gardena. Hainbat gas medikoren iturriekin konektatzeko balio du, hala nola sistema zentralizatu batekin, zilindroekin (bonbonak), kontzentragailuekin eta konpresoreekin. Fluximetro (fluxu-neurgailu) arruntaren bertsioak (absolutua, konpentsatu gabea) eta presio konpentsatukoa, fluxu-maila espezifikotarako egokiak.	<ul style="list-style-type: none"> ex 9026 80 20 ex 9026 80 80 ex 9026 10 21 ex 9026 10 81

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NC kodea
43	CO2aren detektagailu kolorimetrikoa, arnasa botatzekoa.	Haurren eta helduen hodi endotrakealarekin bateragarria den tamaina. Behin bakarrik erabiltzekoa.	ex 9027 80
44	X izpien filma edo plakak.	Laua, sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3701 10 00
		Biribilkietan. Sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3702 10 00